

E ranskinak

- Kasu azterketa: galdetegia irakasleei
- Irakasleekin elkarriketak: transkribapenak

Kasu azterketa: galdetegia irakasleei

Escenarios programan parte hartu al duzu? Beste antzekoren batean?

Zerk eraman zituen formazio proposamen horietan izena ematera?

Ze suposatu du zuretzat Escenarios bezalako ikastaroak?

Zure klasetan lantzen al dituzu zeharkako konpetentziak? Zein mailatan? Zein ziklotan? Zein Ikasgaitan?

Ze zeharkako konpetentzi lantzen duzu? Zergatik hori/horiek eta ez beste batzuk?

Beste batzuk landuko zenituzke? Zeintzuk?

Zuretzat zergatik da garrantzitsua zeharkako konpetentziak lantzea?

Nola lantzen dituzu? Ze aktibitateen bitartez? Ze metodologia erabiltzen duzu?

Aktibitate zehatzak badituzu?

Metodo bat baduzue?

Zeharkako konpetentziak lantzeko material bereziren bat erabiltzen al duzu?

Zuk sortu al duzu horrelako materialik? Ariketak, testuak, praktika bereziak, ebaluaketa instrumenturen bat...

Ba al daukazu zeharkako konpetentzien lanketa ebaluatzeko modu zehatzik, berezirik?

Hauek lantzeko garaian, non aurkitzen dituzu zailtasun handienak?

Nola egiten diezu aurre zailtasun horiei? Laguntzarik jasotzen al duzu?

Ze botatzen duzu faltan zeharkako konpetentzien lanketa hobetzen lagunduko lizukeena?

Besterik aipatzeko?

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK LANTZEN

Sarrera moduan, elkarrizketatuari, ikerketa lerroaren kokapen orokorra eskaintzen zaio.

ENEKOITZ ZATIKA ELORZA (E1)

Adina:38

Ikasketak:injenieritza teknikoa

Irakasle bezala denbora:6 urte

Tolosaldea LHn zenbat urte:3

Agertoki berriak programan zenbat denbora darama:2

Zein maila eta zein ziklotan lantzen ari da: Mantenua 1 eta 2. maila

Aplikazioa bakarrik ala taldean: taldean

- Escenarios programan parte hartu al duzu? Beste antzekoren batean?

Bai, bai parte hartu dut eta horretan gabilta uneotan bertan, atzo bertan izan genuen saioa. Bai aurretik duela 2 urte edo etorri ziren Unibertsitateetik izenak ez ditut gogoan, baina Pedagogiatik zela uste dut, 2 ziren, 2 irakasle eta haiek 30-40 ordutan eskaini ziguten eskema bat, ez zeharkako konpetentziak lantzeko baizik eta ikasleekin eta lan egiteko beste metodo batzuk arakatzen eta kontrastatzen ibili ginen, hau da metodo tradizionalatik haratago zeuden aukerak eta ikusten, bilera batzuk egin genituen hori lantzeko eta. Alor denak parte hartu genuen. Esan behar da Escenariosen ere alor moduan gaude, zikloa nahi baduzu, ez indibidualki, gu a sako goaz taldean. Aipatu saio haiek, Unibertsitateko irakasleek eskainitakoak, gure zentroaren erabakia izan zen, guk geuk eskatu genuen ze gure alorra oso motibatua zegoen halako kontuekin eta lan egiteko. 8-9 bat irakaslek parte hartu genuen. Eta beno guk argi ikusten genuen behar genuela ze metodo tradizionalak guk pentsatzen eta sentitzen genuen ereduak erdiesten ez zigun laguntzen, ikasteko erak, euren portaerak nola diren eta, ikasleek guk barneratzea nahi genuena ez zutela behar bezala barneratzen konturatu ginen.

- Zerk eraman zituen formazio proposamen horietan izena ematera?

Nik uste dut alderantziz izan zela. Guk egin genuen hausnarketa bat alorrean eta konturatu ginen ezin genuela jarraitu lehengo modeloarekin eta eman genion buelta bat batez ere ikasleek beste konpetentzia batzuk garatu behar zituztela konturatzen ginen eta gero konpetentzia horiek lanean ere baliagarriak izango zirela. Gu mugitu ginen, hitz egin genuen Teknikarekin, bagenekien Escenarios zegoela, hau uste dut bigarren urtea dela eta guk han sartu nahi genuela esan genuen, nahiz eta alor modura ezin joan, sikiera indibidualki bada ere, guk aldaketa egin nahi genuela beharra sentitzen genuelako eta horregatik prestakuntza behar eta nahi genuela.

- Ze suposatu du zuretzat Escenarios bezalako ikastaroak?

Ikustea gure modura jende asko dagoela, beste modu batera erakutsi ahal dela eta ikasi ahal dutela ikasleek. Baina arazo handia da ze denek arazo berdinak ditugu bai ikasgune gisa edo modu indibidualean, batez ere ikasleen jarrerarekiko eta. Ikasten gabilta, jarrera desegoki hori nola kudeatu, zein metodologiak dauden, PBLak ikusi genituen. Nik aurretik metodologia batzuk ikusiak nituen. Gu iaz hasi ginen, udaran ibili ginen honekin. Gauza berriak daudela, bakoitza ibili gara gauzak irakurtzen, materialak eta irakaskuntza magistral horretaz aparte badagoela bestelako aukerarik, zaila dela baina posible dela.

- Zure klasetan lantzen al dituzu zeharkako kompetentziak? Zein mailatan? Zein ziklotan? Zein Ikasgaitan?

Saiatu naiz. Guk aurten egin duguna da guztiarekin apurto nolabait. Ziklo bakarra daukagu eta guretzat nahiko erraza da denak batera sartzea. Bigarren mailan proiektuak egiten jarri ditugu zuzenean, 3 modulu sartu ditugu, erlazioa dutenak beren artean eta beraz denak batera 3 egitasmo lantzen jarri ditugu. Jarri ditugu taldean, talde bakoitzeko baliabide batzuk eskaini, lehen zena ikasle bat eta ordenagailu bat baliabide horiek ez direla posible despistatzen direlako eta beren lanean euren kabuz gauzak egiten hasteko. Lehen mailan eta bigarren mailan aldaketa altzariterian egin genuen. Klasea ikusten baduzue ez da gela tradizional bat, mahai bat, arbel bat, ordenagailu bat eta irakasle bat.. baizik eta pentsatu genuen egitea txokok. Bi mailatan egin genuen hau naiz eta lehen mailan ohiko edo betiko filosofia mantendu. Nahi genuen lan taldean lan egitea Nahi genuen ikasketaren pisua ez egotea gure gain bakarrik baizik eta euren gain ere jartzea zama hori. Beraiei pisu gehiago eman. Zeharkako kompetentziak lantzen ditugun? Saiatzen gara. Baina... batzuetan ezinezkoa da.

Bi mailatan egin dugu hori, goi mailako zikloa da. Iaz lehen mailan egon zirenak zerbait landu zuten, ez ziren zerotik hasten, proiektutan lan egin zuten, tailerrean egin dutena taldean izan zedila saiatu ginen, kalkulua, kudeaketa, dena nahastuta egin genuen. Iaz ez genuen hain modu ordenatuan egin. Dena nahastu genuen. Ebaluazio asko kostatu zaigu. Nahiko gaizki pasatu dugu aurten. Batez ere bigarren mailan. Lehen mailan ez hain gaizki. Positiboa beraz, lehen mailan, negatiboa bigarren mailan. Hor gabiltza moldatzen. Gauza batzuk aldatuko ditugu baina gauza batzuk gustatzen zaizkigu ikasleen baitan ikusi ditugun aldaketak batez ere. Ikasleak datoz *virgen*, beno edo hala uste dugu baina ez dakigu oso ondo aurreko ikaskuntzatik nola datozen (batxillergotik). selektibitate oso lerratua), ez dakigu aurreko euren ikastaldietan nola ikasten duten, beraz aldaketak sumatu ditugu batez ere lehen mailan. Esan bezala bigarren mailan prozesua zailagoa izan da.

Goi mailako zikloetan ari gara, gure ikasgaia da mantentze instalazioak, hor sartzen da berokuntza, hotza eta klimatizazioa bezalako gai potoloak ditugu hor. Guretzat nahiko erraza da nahastea gaiak, moduluak, alegia. Lehen mailan ematen dena gero perfektionatu egiten da. Lehen mailan oinarria eskaini nahi genien, kalkulua, kudeaketa, programazioa, oinarritzkoa eskaini eta bigarren mailatik aurrera hasi proiektua egiten. Hori zen helburua, helburu horretan emaitzak ez dira izan nahi genuenak

- Ze zeharkako kompetentziak lantzen duzu? Zergatik hori/horiek eta ez beste batzuk?

Hasieran 10 bat jarri genituen ebaluagarriak izango zirenak. Puntualitatea ekipamenduaren erabilera, taldeko lana, gu konturatzen ginen ikasleak ez zedela sozialki inplikatuak eta hori nahi genuen, baserrietako filosofia genuen buruan, auzolanaren kontzeptua, baserrietan hain hedatua dagoena, ardurak konpartitzea, talde kohesioa eta talde lanaren garrantzia, arduraz jokatzeko... beno gauza da asko zirela konturatu ginen batez ere gero horiek nola ebaluatu? eta askotan oso subjektiboa zela horiek baloratzea ere, auzolana nola baloratzen duzu. Gabonetatik aurrera, ordea, konturatu gara gutxiago jarri behar ditugula eta egunero behatu behar direla, puntualitatea, egunerokoa nola betetzen duten, ekipamenduak nola erabiltzen dituzte, interneten erabilera (zu klasea ematen zaude eta Marca edo DVN sartuta badaude), talde lana, taldean konpromisoa, parte-hartzea eta autonomia, baina oso zaila da ez dakit zenbat excel bertsio egin ditugun dagoeneko, nazkatuak gaude. Potolo handi bat daukagu eta egunero-egunero osatzen goaz. Baina beno nik uste dut 6 horiekin asmatu dugu.

Gure arazo handiena da, gaitasun sozial horiek garatzen doazen ikustea eta horiek ebaluatzen asmatzea. Argi daukagu Lanbide Heziketaren ikuspegitik hori egin behar dugula baina gero ez dakigu oso ondo nola eta egiten dugun horren ebaluazioa nola egin. Orain nik egiten dudana da, egunero- egunero 6 horiek hartu eta banan bana ebaluatu. Uneotan 17 ikasle dauzkat, 20kin hasi ginen, batzuk lanera joan dira eta beno uneotan 17 gara. Egiten du edo ez du egiten, puntuala da bai edo ez? planifikazio hau daukagu, betetzen da bai edo ez....

6 konpetentzia horiek aukeratzeko arrazoiak izan ziren gure ikasgaia eta gure lanean Mantenua ikasgaiaren ikuspegitik zuten garrantzia, hori kontuan hartuta egin genuen; puntualitatea inportantea, dei bat egiten diote eta ez badao puntual, berandu badao, produkzioa galtzeko arriskua dago, berandu badao matxura areagotu daiteke edota matxura handiago izatea... puntualitatea nola erakusten da? ezin da erakutsi zara edo ez zara puntuala, baina nik ikusi dut hau ikasleei esanda ba, ez bada betetzen negatiboa daukazu .. noski guk jarrerari %30 pisua eman diogu jarduera bakoitzean eta beno 14 ordu ditu jarduera bakoitzak 2 astetan. 14 ordu horietan ez bada etorri puntual etorri ba... Pisuetan garrantzizkoa lehena esango nuke da, puntualitatea (%10a ematen diogu), bigarrena betebeharrak betetzea, makina bat konpondu gabe utzi baduzu eta beste etxe batetik deika daude eta hura ere ez duzu bete eta, ez duzu konpondu edo ajustatu behar bezala... deika dituzu beste toki batetik.. betebeharra lotu gabe utzi eta bazoaz, tresneria nola erabiltzen den ere inportantea da, talde lana, gure lana garatzeko oinarrizkoak diren konpetentziak.

- Beste batzuk landuko zenituzke? Zeintzuk?

Saiatu gara. Ikasten ikasi eta antzekoak baina uste dugu oso zaila dela, gero ebaluatu behar direlako. Guk errazera jo dugu. Guretzat ebaluagarriak diren puntuak zehazten saiatu gara. 10etik 6ra jaitsi ginen. 10 asko ziren. Beti ez da zertan egunero ebaluatu baina....

- Zuretzat zergatik da garrantzitsua zeharkako konpetentziak lantzea?

Ni lan horretan ibili naiz, praktikan, mantentze alorrean eta badakit zer den garrantzitsua, eta badakit zer akats egin ditudan nik eta orain gure irakasle rol honetan gauden honetan gure zeregina da gure esperientzia erakustea. Gure esperientziak esaten duena irakastea inportantea da. Auzolana, talde lana, elkarrekin datozenak eta oinarrizkoak direnak gero lan munduan jarduteko..

- Nola lantzen dituzu? Ze aktibitatearen bitartez? Ze metodologia erabiltzen duzu?

A boleo, ahal den moduan. Puntuala zara edo ez. Zigorak jartzen, ez da egokiena polizia lanak egitea baina askotan tokatzen zaigu. Adibidez talde lanena, nik jarduera aldaketa daukagun egun bakoitzean ordu edo aste honetan ikastea nahi dudana planteatzen diet, ikasi behar duzue hau edo bestea, ordu edo aste hauetan hau barneratzea tokatzen zaigu. Nik esaten diet disko gogorra bete behar dugula, materiala sortzen zaudete gero zuek lanean erabiltzeko. Noski hau lehen mailan. Gero bigarren mailan lanean erabiltzeko materiala sortzen zaudete gero talde lanean erabiltzeko. Talde lanean egin beharko ditugu gauza batzuk eta beste batzuk modu autonomoan. Ez dakit asmatzen dugun. Zer egiten dute ikasleek ba beno zenbat gara taldean, zenbat lan daude egiteko ba banatzen gara gure artean, zuk bi, nik bi eta hark beste bi... eta gero elkarren artean artxiboak pasa eta kito. Besteena irakurri ere ez, beraiek ere konturatu dira horretaz. Gero froga teoriko individual bat egoten da, froga teoriko horretan beste pertsona batek egindako zatia bada galderaren oinarria, ba nola jarriko dute ondo?. Autonomiaren kasuan, nik talde magistralak gutxi eman ditut aurten, nik oinarrizko informazioa

eskaintzen diet eta esaten diet nik dakit dakidana eta informazioa hemen daukazue, zuen ordenagailuan, nik azalpenak ematen dizkiet, formulak erakusten dizkiet, egoera desberdinak konpontzeko eta gero eurek adibideak jarri behar dituzte, ze bestela nik ariketa denak eginak emanda, memoriaz ikasten amaitzen dute. Lehen mailan 5 talde ditugu eta ni bitartean taldez talde nago laguntzen eurek arazoei konponbideak nola ematen dizkioten ikusten eta noski laguntzen, taldetan dauden arazoak konpontzen, noski honela klasea da kaos bat, ze talde txiki batekin nago eta gero besteak bitartean daude entzuten taldeari esaten ari naizena etab .Asko konplikutzen da ikasgelaren kudeatzea, askotan nago talde batekin azalpenak ematen eta besteak atzean ditut zer esaten diedan entzuten.

➤ Aktibitate zehatzak badituzu?

Ez daukat deus zehatzik. Inprobisatzen nabil, gu ez gara espertoak, ikasleak dira konejilloak, iaz eta aurten eurekin frogatzen ari gara, esaterako, bigarren mailan eman genien proiektu bat egiteko eta proiektu ororen elementu guztiak zein ziren irakatsi eta ondoren eurek osatu behar zuten, etxe bateko berokuntza sistema osoa antolatu, kalkulatu behar duzue, planeatu, aurrekontuak elaboratu kudeatu, eta mantenua ere planifikatu, noski denboraren kudeaketaren gestioa ere euren esku utzi genuen eta hor arazo batzuk sortzen dira, taldean batzuk lanean ari dira eta besteak eserita lasai begira besteek nola lan egiten duten, ordenagailuak ere kendu egin genituen, despistek eta ekiditeko. Hor arazoa izan zen, ikasleak amaieran entregatu beharreko memoriari begira lan egiten ari zirela eta euren denbora horren baitan antolatu zuten. Memoria halako egunetarako eta horren arabera lana antolatzen. Taldearen inplikazioa sustatzea oso zaila da.

➤ Metodo bat baduzue?

Metodoak aurten ikusi ditugu. Tknikarekin ikusten genuen bat eta beno gero pentsatzen nuen hori ikasgelara ekartzea, ikusi genituen PBLak (arazoetan oinarritutako ikaskuntza), simulazioak, analisiak eta beno gero saiatzen gara horiek ikasgelara ekartzen. Tknikak esan digu daukazue erramienta kutxa bat- teknika desberdinekin- hasi ginen PBLak ikusten. Hori sortzen ari gara ikastaroen bitartez. Orain proiektuko metodoa ikusten gabiltza. Hor abaniko bat dago eta gero norberak ikusi behar du. *Escenariosen* filosofia izan da ostegun batetan 3 ordutan jorratu hori pixka bat eta gero hurrengo 15 egunetan ahal bada eta denbora baduzu ba aplikatu landu metodologia desberdinak eta gero horiek ikusi ikastetxean nola egokitzen diren. Nire arazo handiena izan da adibide errealek ez ditudala, batez ere Lanbide heziketari egokitzen direnak. Hori da ikastaro hauetan falta botatzen dudana, adibide errealek eta beno zer esanik ez nire espezialitateari egokitzen direnak. Gurekin zer ikusia duten besteek zer egiten dute, esaterako ziklo industrial batean, PBL bat nola egiten den edota simulazio bat edo analisi bat...saiatu naiz baina... asko kostatzen da

➤ Ba al daukazu zeharkako konpetentzien lanketa ebaluatzeko modu zehatzik, berezirik?

Lanketa ebaluatzeko arazo nabarmenak ditugu. Ebaluatzeko nik eta nire modura alorreko 5 irakasleok erabiltzen dugu excel orri bat, jarrera edo zeharkako konpetentzietan %30eko pisua ematen diogu eta 6 betebeharrak ditugu identifikatuta, puntualitatea, betebeharra, ekipamenduak, talde lana, parte hartzea eta autonomia eta egunero gure balorazioak idazten ditugu, eta 1 edo 0 jartzen dugu, 6 egun badira jarduera batean ba 6 izango du dena ondo badago.... eta honela egiten dugu banan bana. Excel horretan eskala baten 4 puntu ditugu 10-7,5-5-0 eta 1-0 horrek ematen diona balioa estrapolatzen dugu eta hori da bere emaitza.

- Hauek lantzeko garaian, non aurkitzen dituzu zailtasun handienak?

Ikasleak ohituta daudela irakaskuntza magistralaren bitartez hartzaile pasiboak izaten, zuk eman eta nik ikasiko dut zuk emandakoa. Batzuetan bai, ikusten zaie batzuei halako gogo eta nahia baina orokorrean zuk eskatutakoa egin eta euren helburua da 5 era iristea eta nahikoa, beraientzat horra iristea da helburua. Hasieran zenbakiak jartzen hasi ginenean ikasleei ez zitzaien asko gustatu eta hasi ginen ebaluaketa kualitatiboagoa (ondo egin duzu, nahikoa egin duzu edo hobetu dezakezu) egiten baina gero ikasleak berak zenbakia nahi du, zer nota daukat, zer egin behar dut 5 ateratzeko. Bigarren mailan jarrera honela ebaluatu dugu esaterako. Eta hor sortzen dira gatazkak, baina niri jarri didazu hobetu egin behar duzu eta ez dute ulertzen ikasleek, zenbaki bat nahi dute ez balorazio kualitatibo bat. Noski hori jarri dudala. Orduetgia ere aldatu dugu. Noski ebaluazioa ere egin dugu talde osoak, nola modulutan nahastuta ibili garen. Saiatu gara ebaluazioa egiteko, proposamen orokorraren baitan ahalik eta koherentzia handiena izaten baina, zailtasunak izan ditugu.

- Nola egiten diezu aurre zailtasun horiei? Laguntzarik jasotzen al duzu?

Hasieran saiatu ginen eurekin hitz egiten. Italiara joan ginen beka batekin alorreko 3 irakasle Volzano iparraldean, Dolomitetan kokatua dagoen eskualde batera. Han proiektuak lantzerako unean ikusi genuen izugarritzko gauza interesgarriak egiten zituztela ikasleek, beraiek, ikasleak, oso inplikatuak proiektutan oinarritutako irakaskuntzarekin eta beno handik etorri ginen eta beno saiatu ginen, azaldu genien. Egia da aurretik ere esan genien aldaketa dator, prestatu proiektuak lan egingo duzue, asko ikasiko duzue beste modu batera egin behar ditugu gauzak, ondo egingo duzue zaudete lasai etab... baina gure sententzioa da guk bai izan dugula ilusioa baina beraiek ez, ikasleek ez dute ilusio hori izan. Ilusio hori ez diegu transmititu. Ikasleek esaten dizute ni hona titulua ateratzera nator eta kito. Guk gehiago genuen beraiek baino. Saiatu gara taldean hitz egiten. Guk akats asko egin ditugu aurten. Baina euren aldetik ere ez dugu izan grina hori gauzak beste modu batera egiteko. Esateko instalazio batean nola egin dezaket hau beste modu batera hobetzeko, ba ez, ez dago egon kezka edo ilusio hori. Eta beno oso gogorra izan da. Zein arazo duzue, zein akats egin dugu guk. Ez gaituzte tiratu... ez eskatu soluzioa, zer gehiago behar dut hau hobetzeko.

- Berrikuntzarako nahi hori, ikasteko nahi hori ez du piztu. Hau da egin dugun hausnarketa.

Egoera honetan ez dugu laguntzarik, taldea osoa gaude hori bai, gu 5eko irakasle taldea gara eta oso batuta gaude argi daukagulako bidea hori dela alorrean eta beno gure irakasle gelako paretek hitz egingo balute ba... goitik (gelatik jaitsi) burumakur... eta beno asko hitz egiten dugu gure artean. Bai ondo ari gara... beste batzuetan frustrazio puntu batekin eta beno. Zuzendaritzaren aldetik aldekatu eta babes erabatekoa izan dugu. Eskolak animatu gaitu hau egiten baita. Eskolan beste ziklo batzuk daude eta gu desberdinak izatea ba beraientzat ere nahiko berezia da. Gu esperimintatzen gaude eta hauek daude itxaroten ea zer gertatzen den. Mantenua berezia da zentzu horretan. Guk gure esparruan gure mailan aldaketa nahi dugu eta horregatik izanda.

- Zeharkako konpetentziak lantzeko material bereziren bat erabiltzen al duzu?

Ez. Interneten eta foroetan ikusi duguna. Nik lagun bat daukat ikastola batean (Begoñazpi ikastolan) bertako ikasketak burua da eta beno beraiek lan asko egiten ari dira azaroetan oinarritutako ikaskuntza eta honelakoekin eta beno berekin egoten naiz eta beno berarekin udaran eta ibili nintzen ba ikusten zer eta nola egin

zitezkeen gauzak. Baina zerbait modu sistematiko batean eta hori ez dugu. Beharren arabera eta sartu Googlen eta ea zer agertzen den.

- Zuk sortu al duzu horrelako materialik? Ariketak, testuak, praktika bereziak, ebaluaketa instrumenturen ...

Ez dut deus berezik sortu. Jarduera bat edo beste sortu dut, PBL bat nola egin eta honelakoak. Ebaluaketa tresna baita, baina gure modura. Hasieran irailan sortu genuen bat, gero aldatu egin genuen urrian eta beno gero hirugarren bat egin genuen abendurako. Niri momentuz balio dit eta besteak ere pozik daude. Gero Moodle erabiltzen dugu ikasleei eta gida lerroak zehazteko. Jardueraren azalpena plataforma honen bidez egiten dugu, zer egin behar duten dokumentu bat zehazten dugu.

- Ze botatzen duzu faltan zeharkako konpetentzien lanketa hobetzen lagunduko lizukeena?

Adibideak. Beste pertsona batzuen esperientzia. Badago *escenariosen* jendea proiektuekin eta lan egiten eskarmentua duena baina. Denok arazo berdinak ditugula konturatzen gara. Guk orain, hau garatu behar dugu. Ondoren ikusi dugunaren inguruan hausnartu behar dugu eta gero ziklo modura parte hartzen ari garenek, inplementatzeko konpromisoa daukagu. Zeharkako konpetentzia eta metodologia berri horiek martxan jarri behar ditugu eta argi daukagu hasi behar dugula lehen mailatik eta bigarrenenean, beste modu batera baino, hau martxan jartzen. Konpromiso hori hartu dugu. Eskura izatea gauzak, dudak ditugu eta nork lagunduko dit. PBL bat esaterako, niretzat arazoa bera da, nola planteatzea zen. Lanbide Heziketan gauza espezifikoa ikasten dituzte gero bere lanean topatuko dituztenak. Eta noski hor gauza asko daude. Denbora ere bai eskatzen dugu. Dena oso azkar doa. Lanbide Heziketan 3. urte bat egongo balitz baina....

Escenarios bi urteko proposamen bat da, 15 egunero daukagu saioa eta arloko bi joaten gara, 8 orduko liberazioa dugu, 4 ordu eta 4 ordu. Ostegun horretan bi irakasle falta gara. Alor buru figura bat dugu koordinaziorako eta falta eta beno horrek karga bat suposatzen du batez ere otsaila arte (otsailean lantokietara joaten dira ikasleak).

Saioak praktikoak dira, metodologia baten azalpena ematen du aditu batek (Mondragon politeknikoko irakasle batek eta beno beste hainbat aditu ere pasatzen da handik) eta gero hori jorratzen dugu. Aktibitate praktikoaren bidez. Taldeka egiten dugu lana simulazio antzekoen bitartez eta egiten ditugu, rol desberdinak hartuta (ikasleak, irakasleak...) Alorrean konturatu gara honek jarduerak eta antolatze oso- oso ondo planifikatu behar dugula prozesu dena. Koordinazioa elkarren artekoa oso inportantea dela. Ez da logikoa tailerrean gauza bat egiten aritzea eta beste batzuk ere berdina egiten aritzea beste eremu batean edota zer ikusirik ez duen zerbait egiten aritzea. Denak oso engranatuta eta lotuta joan behar du eta horretarako planifikazio zorrotza eta sistematikoa beharrezkoa da. Esaterako, berokuntza ematen ari bagara alor denetan gai berdina lantzea perspektiba desberdinetatik bada ere, baina sinkronizatuta. Ikasleak askotan mareatzen ditugu ere.

Escenarios-eko lehen urtean gaude. Aurreko astean hemen egon ziren bertako koordinazioa eramaten dutenak eta datorren urteari begira plan bat egiteko eskatu digute, eremu denak hartuta. Modulu denak uztartuta. Hau da, nola martxan jarriko dugun formazioan jasotakoa. Momentuz esan zaiguna da, ikasi duguna martxan jarri behar dugula. Ni oso pozik nago batez ere jendeak daukan esperientziarekin. PBLkin urte asko daramaten jende bat (Natalia, Dani) ezagutu eta ikusi eta beno asko ikasten da. Figura desberdinak daude Escenariosen, unibertsitate irakasleak

daude, Lanbide Heziketakoak eta beno oso ona da. Niri gustatzen zait hori. Unibertsitateak lagundu behar dio LHri.

Gure arazoa da Batxilerretik datorren ikasle baten motibazioa oso baxua da. Irakasleak gaiztoak gara, autoritarioak eta beno azkenen aurreiritzi askokin datoz. Baina nik frogatu dut aurten, gauzak argi eta esaten bazaizkie, edota ebaluaketa irizpide zehatzak ez badituzte betetzen ba beraiek argi badute zer eskatu zaien ba beraiek argi dute ondorioa. Ni aurten saiatu naiz eguneroko lanari pisua ematen eta ez hainbeste pisu ematen azterketari, aspektu formalei (lexikoa, idazkera, otabar garrantzia ematen) proiektuaren memoria egiterako unean bestelako elementuak lantzen, (aspektu formalak, lan bat entregatzeko esaterako). Ikasleak ez daude ohituak erabakiak hartzen, zuk jarri behar dituzu irizpideak eta haiak zuk esaten duzuna asko pentsatu gabe egiten. Ikasleei erabakitzeko ahalmena ematen badiezu pentsatzen dute zerbait ezkutukoa egongo dela horren atzetik. Bai, bai... bigarren mailan esaterako ikusten badugu ikasle batek ez duela maila eman eta esan diogu edo jarri diogu hobetu behar duzu, ikaslea haserretu da eta ez du ulertu.

Irakaskuntza-ikaskuntza, prozesu osoa berrikusi beharra daukagu. Ez da posible, gure ikasleak egotea Amara berri bezalako egitasmo batean gaur Beasain bezalako toki batean (gu joan gara hara hura ikustera) eta gero Batxilerra egitera beste toki batera eta han berriro sartzen ditugu gela itxi batean mugitu ezinda, eta gero sartzea ikasgela itxi batean... guk begiratu dugu Amara berri eta ikusi dugu haurrak lan egiten bere kabuz, gu sartu gara gelara eta gaituzte begiratu ere egin... ez dakit arazoa non dagoen, nik uste dut haur eta lehen hezkuntzatik gero goi mailako ikaskuntzara badagoela eten bat, nik uste dut etenak daudela prozesua osoaren baitan. Non dago etena, zuloa? ez dakit eta guretzako errazena da besteei kulpa botatzea, begira nola datozen, baina nik uste dut guk zer egin dezakegun argitu behar dugula. Gero ikasle denak desberdinak dira, bakoitzak bere ibilbidea du, datoz bere motxilarekin eta batzuetan oso pisu handikoa gainera, emozioak kudeatzea oso zaila da esaterako. Eskua eman eta besoa hartzen dizute batzuk. Gero autoritario jartzen zara... eta beno oso zaila da hau dena kudeatzea. Gu ez gara poliziak, 20-22 urte dituzue esaten diegu eta zatozte ikastera, galdetzen diezu zertara zatozte? titulua ateratzea erantzuten dute eta esaten diezu, zertarako balio dizu paper horrek? lanean sartzeko agian bai baina gero sortuko diren arazo eta errealitateen aurrean ez badakizu moldatzen ba. Hausnarketa hori daukagu eskuartean.

Irakaslea naiz eta alorreko ikasketa burua.

Instalazio termiko eta fluidodunak. Ura, gasa, berokuntza....

➤ Besterik aipatzeko?

Ebaluaketak, planifikazioak eta prozedurak kezkatzen gaitu, asko. Eta emozioen kudeaketan oso motz gaude. Gu injeniero teknikoak gara. Nahiz asko irakurri eta nahiz ikastaro mordo bat egin. Pedagogiaren arloan gabezia handiak ditugu. Eta beharrak ere.

IGOR BEAUMONT URANGA (I2)**Adina:**42**Ikasketak:** informatika**Irakasle bezala denbora:**10 urte**Tolosaldea LHn zenbat urte:** 4

Agertoki berriak programan zenbat denbora darama: 1

Zein maila eta zein ziklotan lantzen ari da: informatika

1. mailan

Aplikazioa bakarrik ala taldean: bakarrik

Ni nire kabuz joan nintzen, pertsonal moduan. Ni ordezeko nago eta beraz gaur hemen nago baina ez dakit. Beraz interes pertsonal gisan joan naiz. Escenariosen gaia sortu zenean parte hartzeko muga batzuk zeuden, kupo baten moduan (laguntza batzuk tarteko eta denentzat ez zegoen) eta beno denek ezin izan genuen joan. Nere departamenduan eta nolabait Escenarioretik kanpo ere badago jende bat hau garatzen ari dena bere kabuz. Eta beno agian interesgarria zaizu haiekin eta biltzea ere. Eta pertsona hauek IMHko zenbaitekin lankidetzan ari dira. Datorren urtean aurkeztuko dute euren burua. Rakel Paskual eta Andoni Berasategi, Andoni Mayora ere dago taldean eta beno hauek informatikan. Hor bi ziklo daude eta oso desberdinak dira.

- Escenarios programan parte hartu al duzu? Beste antzekoren batean?

Gu duela 3-4 urte harremanetan jarri ginen Nafarroako Unibertsitateko informatikako irakasle batekin, ze jakin genuen han PBLtan oinarritutako kontuak eta garatzen ari zirela han eta... eta beno berekin harremanetan jarri ginen formakuntza eskatu genion eta beno niri dezente gustatu zitzaidan kontu hura. Berak proiektutan zuzenduta gehiago lan egiten zuen. Gero, hurrengo urtean, Maristaseko, Dani Irazolaren berri izan genuen eta jarri ginen berekin harremanetan, entzun genuen eta niri bere planteamendua asko gustatu zitzaidan, oso ondo zeukan jorratua dena, fitxa batzuk eta. Eta ildo horretatik saiatu ginen lehen mailan azken hiruhilekoan zerbait egiten. Proiektu batzuk identifikatu eta hauek garatzeko. Metodologia denak daude enfokatuta arazoak konpontzeko metodologietara zuzenduta. Saiatu ginen honetan ikusten ea. Maiatza aldera etorri zen Tknikako Joserra eta beno nik hasieran ez nion asko ulertu baina gero hitzaldi batzuk antolatu zituzten eta oso interesgarriak eta hor azaldu zitzaigun formazio planteamendu honetan parte hartzeko aukera. Eta beno hasi ginen, proiektu bezala departamenduak aurkeztu genuen gure burua eta beno nola aukeretan mugak zeudenez ba nik nire burua pertsonali aurkeztu nuen.

- Zerk eraman zituen formazio proposamen horietan izena ematera?

Motibazio pertsonala izanda nire kasuan. Ni beti klasea ematerakoan, saiatzen naiz bestelako moduetan egiten, edukien transferentzia soila egitea beti oso tristea iruditu izan zait. Behar bada ez da zoragarria ikasten baina zerbait irakasten baduzu zerbait motibatzailea izan dadila, bere interesa piztuko duena. Nik ikusi nahi nuen beste batzuek nola egiten duten. Zortea izan nuen Danirekin eta lanean dabilen ekipo batekin lan egiteko eta.

- Ze suposatu du zuretzat Escenarios bezalako ikastaroak?

Nik tresnak behar nituen eta beste batzuk nola egiten duten ikusi nahi nuen. Neretzako esperientzia asko aplikagarriak direla ikusteko balio dit. Gauzak beste modu batera egin daitezkeela ikusi. Tresna desberdinak, sei kapela, abioi bat egin..... jokoan bidez gauzak beste modu batera egin daitezkeela. Guk ikasi eta ikasi egin dugu eta hemen gauzak azaldu zaizkigu beste modu batera egiteko modua. Guk proiektuak berak egiten buruz ikasi genuen.

- Zure klasetan lantzen al dituzu zeharkako konpetentziak? Zein mailatan? Zein Ziklotan? Zein Ikasgaitan?

Saiatzen naiz. Erdi eta goi mailan. Lehen erdi mailan gutxi ze ordu asko nituen. Ordutegi aldetik ordu asko nituen eta nire asmoak erdizka geratu dira, batez ere bigarren goi mailakoekin, askotan nahi duzu baina kudeaketa kontuek mugatzen gaituzte, ordu asko gai asko.... Nik landu dut segurtasun informatikoa eta web aplikazioen ezarpenean moduluetan.

- Ze zeharkako konpetentzi lantzen duzu? Zergatik hori/horiek eta ez beste batzuk?

Beno nik beste galdera batekin erantzungo dizut eta zer da zeharkako konpetentzia? Lehenik, talde lana nagusiki. Talde lana ez da lana banatzea. Taldean lana egitea ez da lanak banatzea ikasleen artean eta kito. Ikusi dugu esaterako tailer batean beste modu batera egin daitekeela hori, irudimena eta lantzeko beste mekanismo batzuekin. 4 pertsonen artean askoz ere gauza gehiago landu daitezke. Beste gauza batzuk ateratzen dira, irudimena lantzeko, ideia berriak atera. Egiten ikastea da beste bat, askotan ikusi dugu ikasleen motibazioak guk ematen geniena baino askoz haratago zihoala. Ikusi dugu esaterako ikasleek gauza oso konplikatu eta aldi berean politak ebazteko gaitasuna adierazi dutela. Hasiera oso apal batekin. Ekintzaile-tasuna oso beharrezkoa da. Norbera saiatu behar da ideia bat badago aurrera ematen. Batzuk oso motibatuta daude. Informatikaren eremuan jakintza oso azkarra da, abiadura itzela da. Esaterako mugikorren munduan abiadura itzela da eta hor esaterako sartu dira ikasle batzuk eta oso gauza interesgarriak egin dituzte. Autoikaskuntza da batez ere interesatzen zaidana. Batzuk oso motibatuak daude beste batzuk ez hainbeste.

Beno hauek aukeratu ditut, logika aldetik gure ikasgaiaren beharrak hauek direlako, nagusiki. Informatikan gaur dakizunak bihar ez dizu balio. Beti prest egon behar da aldaketarako. Enpresetan ere, inork ez dizu erakutsiko zuk bilatu behar duzu. Lan taldea, beti ohitu behar zara taldean lan egiten. Gero ahaztu zait, New Field filosofia ere lantzen, nola sentitzen zara emozioen kontua lantzen, gertatzen da zaila dela, zu irakaslea zara, ordu gutxi daude

- Zuretzat zergatik da garrantzitsua zeharkako konpetentziak lantzea?

Zeharkako konpetentziak lantzea garrantzitsua da oso, bizitza osorako eta edozein esparrutarako balio dutelako ez soilik ikasketa espezifikoko batzuetarako, baizik eta etxerako, koadrilarako eta denerako balio dute. Gaur agian Informatikatik aterako dituzu babarrunak baina bihar nork daki. Zuk ikasten ikasten baduzu zerbait... gero edozein gauza ikasteko gai zara. Gure aldean jende gazteak beste ikuspegi bat dauka eta hori iruditzen zait oso inportantea da, norbaitek ideia bat dauka saiatu zaitez (Dani Irazolaren esanak), askotan ikasleek gaizki hitz egiten dugu edo dute eta behar bada ez dute izugarritzko espediente akademikoa izango baina ikasleek ere ideia oso politak badituzte eta egitasmo oso politak egiten dituzte.

- Nola lantzen dituzu? zein aktibitate bidez? zein metodologia erabiltzen duzu?

Nik nire jardunean hau garatzeko... beno gu saiatu ginen hasieratik talde desberdinak sortzen, konpentsatuak izaten saiatu ginen eta horretarako teknika bate baliatu genuen, perfilak ateratzeko koloreen bitartez, hau nik ematen nien bi ikasgaietan. Gero baita ere autoikaskuntzaren inguruan nik klasean ematen ez nituen gauzak botatzen nituen, gero bazeuden jende bat haratago joan nahi

zutenak. Ni saiatu nintzen material batzuk ematen eta beno gero zalantzak eta argitzen.

Ni saiaturen naiz nire praktikan garatzen hau dena. Gero ikasgai batzuk zailtasun gehiago dute eta zailagoa da praktikan. Ez daukat aktibitate zehatzik. Ni saiatu naiz. Gauzak ez dira batere ondo joan. Batetik irakasle bakar batek hau dena egitea oso zaila da. Nik uste dut hau ez dela irakasle batzuen kontu soilak, hau irakasle askoren artekoa da eta seguruenik ikasgelan bertan ere irakasle bat baino gehiago beharko genuke. Niri oso zaila egin zait, beraiek lan taldetan egitea gauzak, bakoitzarekin talde bakoitzarekin egon behar da euren lanaren jarraipen pertsonalizatua egin, ez duzu aurreratzen edukietan, erritmoa askoz ere motelagoa da...prozedura arazoak sortzen dira. Neretzat oso berezia da, jendea beraiek ez daude oso ohituta honela lan egiten, taldean lan egiten ez daude oso ohituta asko, planifikatzen, akordioetara iristeko zailtasunak dituzte eta batzuk daude ohituta bere iritzia denaren gainetik jartzen eta beno horrek asko zailtzen du.

Metodologia. Proiektuetan oinarritzen naiz gehien batean. Gauza gehiago ikusi ditugu baina niri zaila egiten zait, ordu asko nituen klasea eta zaila da, baina simulazioa, kasu azterketa eta honelakoak ikusi ditut baina ez ditut aplikatu.. proiektuena askoz gehiago gustatzen zait arazo (beno ez zait hitz hori asko gustatzen baina) uste dut askoz ere egokiago dela, euren parte hartzea askoz gehiago sustatzen delako.

- Ba al daukazu zeharkako konpetentzien lanketa ebaluatzeko modu zehatzik?

Galdera ona. Zailtasun izugarriak ditugu. Ko-ebaluazioa delako ikusi nuen aukera moduan, argentinar bati ikusi eta entzun nion. Eta beno ikasleen adierazle batzuk ebaluatu behar zituzten. Nahiz eta Tonikan entzun dut ez dutela oso gustukoa baina frogatzen nuen iaz eta beno oso zorrotzak izan ziren. Horretarako txantiloak bat sortu nuen. Pisuak jarri nituen (esan nien bizitza halakoa da) eta beno adierazle batzuk jarri nituen euren euren ebaluatzeko. Nik egin nuen nahikoa traketsa izan zen, gero ikusi nuen beste bat askoz ere egokiagoa. eta beno hurrengoetarako saiaturako naiz hobetzen. Harridura geratu nintzen zein zorrotzak izan ziren, berehala ikusi nuen zeinek zer eta euren ere ikusi zuten.

- Hauek lantzeko unean non aurkitzen dituzu zailtasun handienak?

Niretzako oso zaila izan da bakardadea. Pertsona bat baino gehiago egon behar da. Lan taldeak bideratzea ordu asko joaten dira eta emaitza edo ebidentziarik gabe askotan. Beste gauza asko lantzen dira baina inspektorea edo dena delakoari zer erakusten diozu. Nik uste eredu edo material gabezia ere handia daukagu. Enekoitzekin eta hitz egiten ebaluatzeko zailtasuna nabarmena da, nik uste dut inportanteena dela egunerokoa egitea. Beraiek excel orri bat erabiltzen zuten eta nahiko astuna. Niri egunerokoa asko kostatzen zait.

- Zenbat ikasle dituzu?

Zuentzat gutxi. 12 lehen mailan, eta goi mailan 18. Ez dago kexatzerik zuekin konparatuz. Ni ikasle batzuen jarrerak harridura nau, batzuk oso modu positiboan hartu dute hau.

- Nola egiten dizue aurre zailtasun horiei? laguntzarik ba al duzue?

Zailtasunei aurre egiten diegu ez egiten. Askotan arazo asko sortzen dira eta aurrera egin behar da, etsita baina bagoaz, askotan zure egoera ere ez da egokiena. Ekimen pertsonala da nire kasuan, aukera genuen foroen bidez eta elkarri laguntzeko, gauzak eta komentatzeko. Baina horrek denbora asko

suposatzen du. Aukera ematen dizute, ikasi zuk eta gero martxan jarri eta gero dago aholkularitza lan bat baina behar duzu dedikazio bat eta formazio horren ondorioak gestionatzeko. Laguntza badago eta uste dut bastante inplikaturata. Dena den egitasmo honetan dauden beste irakasleen inplikazio bilatzea falta da nire ustetan. Hau da formazio plan horretatik kanpo dauden irakasleek ere jakin beharko lukete honetaz. Ikusteko zer egiten dugun bai ondo edo bai gaizki.

- Zeharkako konpetentziak lantzeko material bereziren bat erabiltzen al duzu?

Material berezirik ez dut erabili. Dezente erabili dut Danik zintzilikatu zituen dokumentu batzuk eta hori eta horren araberrako egokitzapen batzuk egin ditut. Beraiek zerbait diseinatu behar zutenean ba aukera batzuk erakutsi eta horiek arabera aukeratu dezatela eta zergatik aukeratu duten hori. Baina denbora asko joaten da, beste gauza asko lantzen dira baina on daude? ez dira ikusten.

- Zuk sortu al duzu halako materialik? ariketak, testuak, praktika bereziak, ebaluaketa instrumenturen bat...

Nahi baduzu ikusi aurreko txantiloia erakutsiko dizut baina ez du pena merezi. Hauek bai, ordu batzuk dituzte eta beno badakit ari direla sortzen planteamendu bat, garapen oso kontuan hartzen (ikasleak ere bere burua ebaluatzeko mekanismoak)Mantentzekoak ere ari dira halakorik sortzeko eta... ea aplikazioen bat edo egiten dugun baina erraza izan behar du ezin da gauza konplikaturata izan ze gero ez da betetzen.

- Zer botatzen duzu faltan zeharkako konpetentzien lanketa hobetzen lagunduko lizukeena?

Ahulezia nagusia da, praktika, bera da urteen poderioz gauzak gero eta egokiago egingo ditugula uste dut baina eta gero ez da irakasle bakar baten gauza, jende gehiago egon behar du inplikaturata.

- Besterik?

Ez, beno esan interesgarria dela ikusten ari garena, denbora behar da hori jartzeko martxan eta beno gero zaplazteko batzuk hartzen dira. Ikasleak daude ohituta tori hau eta kito, eman jaten niri eta kito. Eta noski orain esaten diegu hau eta hau egin behar dugu, egingo dugu nik lagunduko dizut? eta beno batzuk geratzen dira harrirituta. Noski batzuk beste batzuk egiten dituzte izugarrizko gauza ederrak. Eta beno beste batzuk datoz azterketa eta ea zer eskatuko diezun, zer sartuko da azterketan.

JULEN ARINA ELKOROIRIBE (J3)

Adina:44

Ikasketak: injenieritza tekniko

Irakasle bezala denbora:12 urte

Tolosaldea LHn zenbat urte:11

Agertoki berriak programan zenbat denbora darama: 1

Zein maila eta zein ziklotan lantzen ari da:erregulazioko eta automatizazio zikloko 2. maila eta erdi mailako instalazio elektrikoak 1 eta 2. maila

Aplikazioa bakarrik ala taldean:taldean

Agertokian gaudenok, hemen Tolosan, bueno, Tolosan eta orokorrean. Gaudela zentro batzuk, zentro batzuk ez, e... ziklo batzuk sartuta, non jarraipen zuzena egiten zaien eta gero badaude beste irakasle batzuk borondatez joaten garenok. Eta guri bai egiten zaigu, baina ez jarraipenaren zehatza. Nik badakit uste dut orain hasi direla elkartzen ziklo horietako arduradunekin pixka ikusteko beraiek inplementatzen ari diren guzti hori, e... ze arazoekin aurkitu diren, ordun... guri ez zaigu segimendu hori egiten. Gu gaude, joan gea interes pertsonala daukagulako eta ahal dugun neurrian aplikatzen ari gara... nik kontatuko dizut nire esperientzia.

- Kontu guzti honetan badago elementu bat eta aterako da, konbentzituratuta nago, motibazio pertsonalaren espektro hori, ez? Argi dago irakaslearen motibazioa, ez bakarrik lanbide heziketan, unibertsitatean eta... eta bueno badauka bere interesa hori ikustea. Kontua da, eztabaida dago, irakaslearen motibazioak soilik izan behar duen edo ea instituzionalki gure obligazio edo betebeharra izan behar duen zeharkakoak ere garatzea ez? Baina bueno, ikerketan zehar aterako den eztabaida bat izango da. Bueno, iruditzen bazaizu galderak egingo dizkizut, zuk lasai erantzuten didazu... Escenarios programan parte hartu duzu, ezta?

Bai

- Aurretik, beste formazio planteamendu antzekoren batean parte hartu zara?

Berdin berdina ez, baina bueno, bai hartu izan dut komunikazioarekin erlazioa zeukaten hainbat ikastarotan eta metodologiarekin baino gehiago, inteligentzia profesionaleko ikastaroa ere egin nuen, egin nuen beste ikastaro bat ere talde dinamikak sortzeko eta aurretik bakarren bat eginda daukat gauza teknikoetatik aparte.

- Zu ze alorreko..?

Elektrizitate alorrekoa

- Eta horren barrenean, goi-mailako zikloan ez?

Goi-maila eta erdi-maila.

- Bale. Adibidez, zerk eraman zintuen formazio plan horretan zure izena ematea?

Bueno, ni betidanik, irakaskuntzan sartu nintzenetik, beti izan dut... nik pedagogia ez dut ikasi, irakasteko erak ere... aurkitzen zara zailtasunekin. Ni formatuta nago, nik ingeniari tekniko elektrikoa egin nuen, orduan teknikoki formatuta nago, 10 ordutan egon nintzen enpresa batean lanean, baina teknikoki azken batean lan

eginez. Orduan gauza bat da ezagupen teknikoak izatea eta bestea irakasten jakitea. Nere betiko koska hor egon da. Ordun aurkitzen zara arazo askokin: ulertzen ditut ikasleak? ondo azaltzen dituzu gauzak? erabiltzen duzun metodologia egokia da? ez da egokia? ni behintzat gabezi askokin sentitu naiz. Ordun, pixkat bat gabezi guzti horiek menperatzearen eta ikasleengan gauza ezberdinak edo errazagoak egiteko asmokin, sartu nintzen honekin. Baita ere ikusten nuen betiko klase magistralak noizbehinka ondo etortzen direla, baina beti ere txapa sartzea... ikusten genuen zein zen... Ordun, asmoa beti da ikasleengan eragin gehiago izatea eta azken batean, produktua, gure produktua ikasleak dira, produktu hobetoak lortzea.

- Escenariosen parte hartzen ari zara. Zer suposatzen du zuretzako Escenariosen ekarpen mailan?

Oraingoan, oso labur esanda, urritik hona hilabete batzuk daude, saio batzuk izan ditugu teknika eta metodologia desberdinei buruz, baina batez ere metodologia desberdinak gehiago sakontze-alde. Bakarren batzuei buruz entzuna baneukan, gogoan gehiago sakontzeko ere, eta azken batean da laguntza bat eta jakitea horren atzean edozein kezka daukazula ere norbait izango duzula. Aukera eman dit gutxienez aurten, ikusitakoa ahal den neurrian klasean jartzeko. Eta bueno, metodologiaren inguruan gogoan neukan jakiteko, betikoa ezagutzen dugu, beste batzuei buruz entzun dugu, baina inoiz ez dut horri buruzko formazioa jaso, orduan niretzako planteatu zigutenean izan zen aukera oso polita... esan nuen, begira, orduak sartuko ditut, badakit esfortzua izango dela, baina gutxienez aukera ematen zigun metodologia desberdinak ikusteko, ez?

- Zure klaseetan, zeharkako konpetentzia horiek, hor garatzen dituzuenak, horiek lantzen dituzu?

Bai, bakar batzuk, horretan ari gara. Azken batean hitz egiten duzu batekin eta bestearekin. Askotan hitz egin dugu teknikoki erakusten dugula, baina gero badaudela beste gauza asko zeharkako konpetentzi guzti hauek lantzen ez zirenak lehen, ez? nik uste dut orain gero eta gehiago lantzen ari dira. Ordun, honek ematen dizuna da aukera, Escenariosen, hori pixka bat...

- Zeharkako konpetentzia horiek modu planifikatu batean lantzen dituzu?

Bakar batzuk bai, esaten dizut, orain nagoela frogatzen epean esaten dena. Bai, adibideekin jarriko dizut, uste dut errazena dela. Nik erdi-mailan, ikaslearen motibazioa gabeziak beti kezkatu nau. Goi-mailan ere, orokorra delako, baina erdi-mailan, frustrazioa, pasibotasuna... hor daude atal asko beti aldatu nahi izan ditugunak... nik aurten erabaki nuen beste era batera lan egin behar nuela, talde zabala neukan, beste urte batzuetan baino handiagoa, 24 ikasle nituen aurten, eta ordun esan nuen 24 ikasleei betiko datu teorikoak ezin zela horrela klaserik eman. Horregatik erabaki nuen 6 talde egitea 4koak, era horretan beraien artean beste konpetentzia batzuk lantzeko. Egia esan ni oso pozik nago atera diren gauzeekin, baita ere arazo asko izan ditut, izan dira talde batzuk, non bata bestearekin ez ziren ondo eramaten, eta tirabira eta txoke asko izan dituzte taldean lan egiteko. Baina orokorrean beste batzuk oso ondo, egia esan oso talde ona izan da.

- Hori erdi-eta goi-mailako zikloetan. Ikasgai konkretu batean?

Bai, nik erdi-mailan lantzen ditut telekomunikazioko gaiak, telebista, telefonia, megafonia dira lantzen dena erdi-mailan. Goi-mailan neurketa eta erregulazio sistemak ematen ditut, ordun dira gai oso ezberdinak.

- Zure planifikazioan baitan zehaztuta dituzu ze konpetentzi landu?

Idatzita, bakar batzuk bai. Adibidez, nik jarrera atalean, jarrera baloratzen dudanean, bai jarrita ditudala hainbat gauza lantzen ditudanak, adibidez, talde lana finkatuta dago, bakoitzaren iniziatiba eta sormena finkatuta dago, partaidetza finkatuta dago, atal horiek bai. Gero badaude beste atal batzuk goi-mailan ere, jende aurrean hitz egitea eta hori hobetzea ere, egiten dugu, baina ez daukat idatzita kompetentzi bezala. Ez daukat finkatuta, nik baloratu bakoitzaren aurkezpena ez daukat jarrita, hor gauza asko landu eta baloratu daitezke. Aurten gauza txiki batzuekin gelditu naiz datorren urtera begira pixka bat zabaltzeko.

Zeharkako kompetentzia horiek aukeratzeko garaian, zergatik horiek eta ez beste batzuk, esan nahi dut, ze irizpidetan oinarritu zinen?

Pasibitatearena eta partaidetzarena, nik betidanik esan dut gizartea orokorrean, gero eta indibidualagoak eta pasiboagoak garela. Hori garbi neukan, talde lanarena ere, enpresetan asko eskatzen ari delako, eta oso garrantzitsua iruditzen zaidalako eta iniziatiba eta sormenarena ere, ba gaur egun, zuk CREANOVari buruz hitz egin duzu, asko entzuten ari da lan krisi guzti honetan behar direla pertsona sortzaileak eta guzti hori, orduan hori argi neukan. Eta gero beste atal bat argi daukat, ikaskideen beraien arteko laguntasuna, ze askotan hori ere gizartean geroz eta indibidualagoak garela eta geroz eta gauza gutxiago konpartitzen ditugula denon artean gauza. Ordun gauzak horiek garbi neuzkan ikusita pixka bat ikasleria. Gero daude beste gauza batzuk, baina bueno.

Zure taldearen analisi horretatik abiatuta, ez?

Bai, nik orain arte ikasleengan ikusten nuena aztertuta eta baita ere eskatzen digutena.

Adibidez, zure buruan badaude beste batzuk, beste zeharkako kompetentzia batzuk iruditzen zaizuna ez direla abordatzen eta abordatu beharko genituzkeenak?

Ba badira bakar batzuk. Adibidez, lidergoarena nik uste dut, landu daitekeela, gertatzen dena da hor pertsonarekin doala baita ere, ez? Lehen komentatu dizut, nik gabezi asko ikusten ditut pertsonak azaltzerakoan ahoz. Nik behintzat zeharkako kompetentzi bezala tratatzen dut. Gaur egun nik uste dudana da horretan gabezi izugarri daudela, hori landu behar da, baina agian lehenengoak hori menperatzen gu geu izan behar gara, ez? Horrelakoak badira.

Zuk esan nahi duzu ez hizkuntzaren zuzentasuna bakarrik, baizik eta...

Ez, nik azaltzeko garaian, aurten ikusten ari naiz, goi-mailan aurten hasi naizela aurkezpenak egiten beraiekin, beraiek egiten dituzte proiektuak lan taldean eta gero aurkeztu behar dituzte. Aurkezterako garaian, gabezi izugarri dituzte. Izugarri kostatzen zaie, eta gero asko kostatzen zaie baita ere, gurekin askotan egiten dute txipa aldatu eta kasurik ez egin, baina beraien ikaskideei ere entzutea. Aurten, nik batzuekin lortu dut, batzuk asko aplikatzen dira. Orduan, horrekin gutxienez lortzen duzu partaidetza asko hobetzea, baina komunikazioan askok eta asko gabezia dute lotsaz aparte. Nik uste dut ez daudela ohituta jende aurrean hitz egitea eta azalpenak ematea.

Eta gero beraiek, nik uste dut daukagun irakasleriaren perfila, ez bakarrik lanbidean, baita unibertsitatean, da jasotzera datorrela, ez dator ematea. Eta noski, zu perspektiba horrekin bazoaz eskolara, hau da, ni nator jasotzea eta ez daukat zertan deus eman, ba hor...

Baita ere komentatuko dizut aurrekoarekin lotuta, goi-mailan arazo gehiago izan ditudala erdi-mailan baino. Eta goi-mailan behin baino gehiagotan nire buruari esan diot ea zuen ari naizen, ze unitate batetan non frakaso totala izan zen eta beraiek esan ziaten beraiek nahiago zutela han egon, nik azaltzea gauzak eta listo. Eta noski, hori oso erraza da, errazena hori da."Bai, baina zuk emandako azalpenak, gero egingo ditugu gauza, baina..." Orduan azkenean zalantzak sortzen dizkizu zuri ere ea zuzen ari zaren edo ez.

Erresistentzia horiek azkenean, kezka sortzen du.

Bai, gero ere ikusten dituzun emaitzak, ez? Pentsatzen duzu metodologia aldatzea, gure artean asko hitz egin dugu, eskatzen duela alde aurretik izugarritzko lana, izugarritzko planifikazioa. Eta ordun, guk aurten, sartzen zara Escenariosen, azaltzen dizute zerbait eta zuk praktikan jarri behar duzu, baina guzti hori aurretik planifikatu gabea egin izan dugu nik uste dut. Orduan, nik uste dut aurretik eskatzen duela izugarritzko lana, oso ondo planifikatuta izatea dena eta oso ondo neurtuta. Horrek ere kaos pixka bat sortzen du.

Azkenean, klase magistrala, errazagoa, didaktikoki ere.

Errazagoa, dudarik gabe. Nik esaten diet, niretzako errazena da ez? Hona etortzen naiz, izugarritzko txapa sartzen dut, diskurtsoa badaukat. Orain, gero zer gelditzen zaizun eta hemendik denbora batera, ze ez da epe motzera, da epe luzera gutxienez ertainera.

Bueno, balio baldin badizu, unibertsitatean pedagogian berdina gertatzen da. Esan nahi dut, askotan pentsatzen dugulako pedagogian oso berritzaileak garela, esan nahi dut, guri ere gertatzen zaigula horrelakorik ez? badaude erresistentziak, baian bueno, nik uste dut sistema berak eraman gaituelako lehen esan dugun horretara. Ni nator jasotzea, hori da eskolak saldu diguna.

Betidanik izan da horrela, joan, jaso, entzun eta gainditu.

Bai, erronkak gainditu eta bueno... Zuretzat hezitzaile bezala, zergatik, bueno argi dago Escenariosen zauden momentutik, zergatik dira garrantzitsuak zeharkako konpetentziak garatzea irakaskuntza praktikan?

Irakaskuntza bezala, nik pentsatzen dut irakaskuntza ez dela bakarrik gauza teknikoetara mugatu behar. Azken batean pertsonak gara, pertsona guztiek gizarte bat osatzen dugu eta gizarte era ezberdin batean egin behar dugu. Lehen komentatu dizut, nik uste dut geroz eta indibidualagoak garela, geroz eta gutxiago borrokatzen dela gauzengatik, geroz eta, geroz eta pasiboak garela orokorrean. Orduan nik uste dut irakaskuntza horren barruan sartu behar dela, ezin dela gelditu guzti honetatik isolatuta, ez? Etortzen gara hona, nik konpetentzi tekniko batzuk ematen dizkizut, jasotzen dituzu, erakusten dizut elektrizitateak nola funtzionatzen duen eta ateratzen zara hemendik eta listo. Nik uste dut gizarte baten barruan gaudela eta irakaskuntza horren barruan egon behar dela.

Nik uste dut azken batean pertsonekin ari gara lanean, ez enpresa bateko makina batekin, ezin dugu lan egin makina batekin egongo bagina bezala. Nik gero nire esperientzia pertsonala enpresa barruan, alde batetik erabaki banuen uztea izan zen ikusten nuelako pertsonok tratatzen gintuztela makinak bezala eta produkzioa besterik ez zuten begiratzen, begiratu gabe pertsonak garela, pertsonak pertsona bezala tratamendu berezia behar ditugula gure gauzak eta ez makina bezala. Eta nik ikusi nuena izan zen tratatzen gintuztela makinak bezala. Zuk egin behar duzu, ezin duzula zuk? ba joan eta beste bat etorriko da. Nik beti horrekin kezka izan dut. Orduan, hemen ere uste dut berdintsu izan beharko litzatekeela ez? irakasten ari

zara, hezkuntza maila bat ematen ari zara, baina ezin dela gauza teknikoan gelditu. Azken batean, gizarte baten barruan gaude eta gauza asko daude.

Heziketaren funtzio sozialaz ari zara, ez? De hecho nik uste dut lanbide heziketa orain arte kanpotik begiratu dugunok pentsatu duguna, hori ez zegokiola lanbide heziketari, honi zegokiola soilik teknikoa.

Teknikoa bai, lehen eta orain ere jende askoren artean. Nik uste dut pentsamendu hori dagoela. Jarraitzen du eta jarraituko du. Nik uste dut hori aldatzea denbora asko... daude ohitura batzuk eta...

Niri bidali dizkidazu profesional onak eta teknikoki onak, alegia.

Dena den, geroz eta gehiago enpresetatik entzuten ari gara. Nik suposatzen dut, beraiek suposatzen dutela behin titulu bat lortu eta gero kompetentzi tekniko horiek lortu dituztela eta horietaz gain, beraiek nahi dutena da inizatiba daukan jendea, ikasteko gogoia daukan jendea, jarrera positiboa daukan jendea, geroz eta gehiago eskatzen digute, orduan, atal hori zertxobait aldatzen ari da.

Confebasc bera teknikari hori eskatzen ari zaio. Confebasc-ek badauka txosten bat hain justu ikerketan sartuko duguna baita ere, pixka bat hori eskatzen, esaten: Goazen honetaz hitz egitea, ze European honetaz hitz egiten ari dira, nik uste dut hor jarrera aldaketa hori... Bueno, pixka bat marko teoriko horretatik alde eginda metodologia errepatatuko genuke. Behin argi dituzunean zein kompetentziak landu nahi dituzun, horiek nola lantzen dituzu? Zein aktibitate bidez, badaukazu metodologia konkretu bat diseinatuta?

Orain momentu honetan ez daukat ezer konkreturik probatzen ari naizelako gauza ezberdinak eta ikusten ari naizelako horien emaitzak, ez? Erdi-mailan bukatu dugua ia beraiekin eta erdi-mailan aurten egin dudana lehen aldiz, lan taldean jarri, beraiei ohitu gauzak, proiektu txikiak eman eta horiek proiektu hori landu behar dute, beraz, buruari eman behar diote lehen ematen ziotena baino gehiago. Talde horiek sortuz eta beraiei behartuz zenbait ariketa egitearekin, nik uste dut talde lana bai bultzatzen dela, sormena bultzatu beharko litzateke edo landu beharko litzateke eta gero beraien arteko komunikazioa nik uste dut lantzen dela.

Goi-mailan ere antzeko zerbait egin dut, emaitzak ezberdinak izan dira eta esaten dizut, arazo gehiago izan ditudala goi-mailan erresistentzia gehiago nabaritu da erdi-mailan baino. Erdi mailan egin ez dudana eta goi-mailan egin dudana da komunikazioko atal hori, hau da, beraiek egin dituzten gauzak aurkeztu behar zituzten besteen aurrean, eta besteek galderak, zalantzak eta beraien ekarpen propioak eman behar zituzten.

Esan dezakegu badaukazula eskema bat, aktibitate konkretu batzuk, baina ez daukazula erabat idatzita, baizik eta ari zarela pixka bat esploratzen ...

Bai, aurten egin ditut egin behar dudana da kurtso amaieran analisia, ikusi pixka bat Escenariosen eskaini ziguten eta azaldu dizkiguten metodologia batzuk oraindik ez ditut praktikan jarri. Nik uste dut izango dela urtetako prozesua. Gainera, urtetik urtera ez dut gauza berdina eta berdin ematen, aldatu egiten duzu, ikusten duzulako hemen aldaketa behar dela. Gero ikasleria ere begiratu behar da zein motako ikasleria duzun.

Behin horiek inplementatzen dituzunean gelan, badaukazu hauek ebaluatzeko modu zehatzik, berezirik?

Taula bat daukat, jarrerarako adibidez. Aurten nik erdi-mailan jarrerari pisu dezente gehiago ematen diot, aurten %30a igo dut, eta hor badaukat taula bat non baloratzen ditudan bai partaidetza, bai puntualtasuna, bai irakasle-ikasleekiko errespetua, inizatiba eta sormena, ikaskideen arteko ... hori bai geratu dela finkatuta eta egunero baloratzen ditudanak. Goi-mailan lan taldean ari direnerako daukat taulatxo bat excel-en non joaten naizen baloratzen bereiek egindako lana. Dena den gauza dezente birplanteatu behar ditut eta aldatu. Jarrerarena nahiko ondo erantzun dute eta gero gainera, nik datu horiek egunero jakin dezakete zein nota daukaten, eta ez dut inoiz kexarik izan, orduan suposatuta behar dut nahiko ados zeudela jarritako gauzekin. Orain arte hori daukat, datorren urterako, ba bueno.

Erabiltzen dituzun irizpideak jarrera neurtzeko adibidez, zer dira kuantitatiboak, modu nolakotasun batean zehazten dituzu?

Beti esan dugu jarrera baloratzea oso zaila dela eta oso subjektiboa dela eta nik jarraituko dut hori pentsatzen. Subjektiboa zer ez da? Subjektiboa ez da adibidez, klasera etortzea edo ez etortzea edo berandu etortzea edo puntual etortzea; horiek nahiko argian dira. Gelako arauak errespetatzea, hori garbi dago, edo errespetatzen dituzu edo ez dituzu errespetatzen. Baina talde lana baloratzeko garaian zer da positiboa zer da negatiboa? Ze punturaino da oso positiboa? Nik bi atal jarri ditut ze oso zaila egiten zitzaidan baloratzea, bi ez, hiru atal: oso ondo edo hobetu beharko luke edo asko hobetu beharko luke.

- Zaila suertatzen zaizu zeharkako konpetentziak ebaluatzea?

Bai, oso eta askotan nik uste dut dela ohituta ez nagoela. Bai, zuk daukazu zure iritzia baina ziur nago, egunero pasatzen zaigu, irakasle batekin hitz egiten duzu eta irakasle horrek ez du berdin pentsatzen. Atzo bertan gertatzen zitzaigun kasu kon.

Ikasle baten jarraipenaren inguruan, ezta?

Bai, bai eta jarrerari dagokionez, ez? Zuretzako gaizki eginda dagoena beste batentzako ez dauka garrantzirik. Orduan, partaidetza baloratzea... parte hartzen du, baina noski, hogeita lau pertsona baldin badituzu eta beste batzuk hogeita hamar, berrogeiko unibertsitatean... Bakoitzaren atal hori baloratzea, nik uste dut oso zaila dela. Errazagoa da azterketa bat egin, azterketa indibiduala zuzentzen dut eta nota jartzen dut; askoz errazagoa da.

Zuretzako zailtasun handiena non dago lanketa hau egiterakoan, zeharkako konpetentzien inguruan?

Non? Batez ere ikasleak konbentzitzea, konbentzitzea benetan zuk hartutako metodologia edo landu nahi dituzun gauza horiek beharrezkoak direla sinestea, nik uste dut beste mundu batetik datozela. Guk askotan komentatu dugu eta lehen komentatu duzu zuk, Lanbide Heziketan nik uste dut pausu handiak ematen ari direla, gauza handiak egiten ari direla zentzu honetan. Nik Lehen Hezkuntzan nire semeei ikusten diet egiten dituztela eta lantzen dituztela, Amara-Berri sistema barruan daude eta orduan gutxi-gorabehera proiektuen barruan lan egiten dute. Baina gero bigarren hezkuntzan hutsune izugarria ikusten dut, ez dakit zerbaitetan ari diren edo ez, baina nik entzuten dudanaren arabera, salto asko dago Lehen Hezkuntzan egiten diren gauza guzti horiek... nik Lanbide Heziketan eta unibertsitatean badakit lantzen direla eta Bigarren Hezkuntzan ez dakit, ez daukat oso garbi nola den... baina ikusita edo entzunda daukadanez... Orduan ikasleak ere datoz era batera hezita, ohitura batzuekin eta nahi dutena da bukatu, lana lortu eta dirua lortu. Orduan konbentzitzea beste gauza batzuk talde lanean egin behar

dutela, beraiek jaso behar dutela informazioa eta nik ez diedala eman, ni bakarrik nagoela laguntzeko eta behar duten guzti hori indartzeko, kosta egiten da. Niri behintzat kosta egin zait aurten. Taula batzuk, aurten egin genituen beraiekin, teknikatik proposatuta, lan taldean lan egin behar zutenean, arau batzuk jarri behar zituzten eta arau horiek ez bazituzten betetzen, ondorio batzuk jasan behar zituzten. Noski, taldean, edo denek lan egiten dute edo bestela taldeak ez du funtzionatzen. Eta batzuei izugarri kostatu zitzaizen, batzuk ez zuten egin ere, ez zuten lortu. Orduan, gauza horietara sartzea kostatu zitzaidan.

Zailtasun horiei aurre egiteko, Julen, zu irakasle bezala, nola ikusten zara? Badaukazu laguntzarik?

Laguntza, nik uste dut ingurukoak direla laguntzarik onena, ez? Nik oraintxe buruan daukat erabat etsituta, hortxe beran ikusita ikusitakoa. Komentatu nuen Escenariosen sartuta dauden beste irakasle batzuekin eta bueno, azken batean batak besteari lagunduta. Nik hau ematen dizut, esperientzia, egin hau... proposamenak eta hortik datoz, ez? Nik uste dut hori behar-beharrezkoa dugula gure artean, ze askotan bakarrik sentitze hori eta inongo... laguntzarik gehiena nik uste dut hortik datorrela.

Esango zenuke formazio bera asetzetik eta gero nolabait ere ikastetxean baitan modu antolatu batean...

Bai, nik uste dut beti behar duzula... alde batetik da formazioa, gu egiten ari garena, behar-beharrezkoa ikusten dut eta niri izugarri laguntzen dit. Baina gero egunerokotasun horretan behin formazio hori jasota, nik uste dut aldamenean ikastetxean bertan behar duzula laguntza hori.

Sortuta badaukazu zeharkako konpetentziak lantzeko material bereziren bat, zuk zeuk eraiki duzuna?

Ez, nik sortutakoa ez, taulaz aparte.

Baina material didaktikoa, beste batek sortu duena erabiltzen duzu klasean?

Ez, ez, konkretuki lantzeko. Ezin gara ahaztu teknikoki hezi behar ditugula baita ere, orduan azken baten egiten ditugun lan guztiak egiten ditugun proiektuak eta egiten ditugun ariketak eta guzti hori, hori bai da nik sortutakoa.

Baina esan nahi dut, ez daukazu ariketa zehatz bat, testu zehatz batzuk, praktika konkretu batzuk... ez daukazu?

Ez, bai badaukat lan dinamika bultzatzeko erabiltzen ditut baina ez dira nik sortutakoak. Badira ariketa batzuk pixka bat lan taldean nola lan egin ikusteko, ikastaro batean eman zidatena eta nik ia urtero erabiltzen dudana. Horretaz gain badira beste ariketatxo batzuk pentsatzen erabiltzen ditudanak, betikoa, betiko hieroglifiko horiek, noizbehinka jartzen dizkiedanak arbelean, baina ez da nik sortutakoa.

Bale, bueno, bukatzeko, bi gauzatxo. Zu gaur zauden egoera honetan, zer botatzen duzu faltan lagunduko lizukeena zeharkako konpetentzia hauek lantzen?

Faltan gehien bat alorrean bakarrik sentitzen naizela. Alorrean ni bakarrik nago guzti honetan sartuta eta ordun, ba bai, faltan botatzen da alor bertan, elektrizitate alorrean jende gehiago sartuta ez egotea eta jende gehiagoren interes hori ikustea. Hori alde batetik.

Zure ustez, eta hau igual gidoitik kanpo, zure ustez beste irakasleak zure alorrekoaren kasuan, ez egotea egitasmo honetan edo Escerarios-en, zein iruditzen zaizu izan litekeela arrazoia?

Arrazoi ezberdinak egongo dira, ez dakit zehazki bakoitzarena zein den, baina arrazoi oso ezberdinak: badago jendea seguru aski ez diona, nik entzun izan dut ez hor bakarrik, ez diona garrantzirik ematen; badago jendea esperientzia asko daukana eta beraien ustez nahiko gauza ezberdinak probatu dituzte ez dute seguru aski horren beharrik ikusten, beste askok seguru aski denbora falta, batetik edo bestetik kargatuta zeudelako; badago jendea beste proiektu batzuetan sartuta dagoenak eta argi dago, nik badakit jendeak interesa izango lukeela honetan, baina sartuta baldin bazaude beste proiektu potolo batean, ba azkenen denera ez zara iristen.

Honek pertsonalki konpromisoa eskatzen du, ezta?

Bai, noski. Ezin da izan eta ez da konpromiso puntual bat, ze hau ez da gauza bat non momentu honetan ikasten dut, praktikan jartzen dut eta listo. Suposatzen da etorkizunerako erabili behar den zerbait dela ez? Eta bai, konpromiso pertsonala dudarik gabe, eta orduak, gauza guztiak bezala ez? Baina bueno. Motibatuta bazaude erraza da, gogoekin baldin bazaude eta zuk pentsatzen baduzu egin behar duzula nik uste dut errazagoa dela. Gero, norberak jakin behar du zeri ematen dion pisua lehentasunak jarri behar dira, ez?

Nik honekin listo, ez dakit beste zerbait nahi zenuen komentatu, iruditzen zaizun interesekoa jasota gelditzeko edo.

Oso interesgarria iruditzen zait horrelako gauzak egitea eta nik uste dut saiatu behar garela alde guztietatik, edo gizarteari bueltatxo bat ematen diogu edo nik behintzat ikusten dudana ... lehen komentatu dizudana indibidualismoarena da geroz eta gehiago... geuregandik hasita. Orduan, ikusita zein etorkizun daukagun eta entzuten direnak entzunda, zerbait egin behar da.

Honen bitartez posible dugu eragin.

Nik uste baietz. Ni konbentziturata nago baietz, bestela ez nintzen hemen egongo. Zenbat eta jende sartuta gehiago, orduan eta hobeto.

Hau ia gidoitik kanpo pedagogian badago eta gure fakultatean bere garaian Freire eta Howard Gardner eta guzti hauek pentsatzen dutenak, hezkuntzaren bitartez posible dela gizartea nolabait transformatu, ez? ez dugula bakarrik produzitu behar baizik eta, dagoena erreproduzitu.

Nik horrela pentsatzen dut. Heztea gauza bat da eta ezin da bakarrik irakasle edo eskolaren menpe... hortik kanpo gauza asko daude, baina garbi dago hemen barruan ere gauza asko egin daitezkeela.

Azkenean hor daukaguna da hezkuntzaren funtzio politiko sozial hori, ez?

Gertatzen zaiguna guri da urte eta erdi dela gurekin ikasleak, oso motza da, ordun nik entzun izan dut irakasleengan: "zer egin behar duzu urte eta erdian?" baina noski, horrela pentsatzen baldin badugu denok, errazena hori da, ez? Urte eta erdi daukagu eta aitzaki polita da azken batean ezer ez egiteko. Urte eta erdi, urte eta erdi da.

Dena den, unibertsitatean bost dira eta beste batzuk berdin pentsatzen dute.

Bai, azkenean nik uste dut dela norberak duen gogoia eta norberak pentsatzen duena. Azken batean nik hemendik egin behar dut eta uste dut egin behar dugula zerbait hortik eta horrekin ekin, ez?

Ba oso ondo Julen, asko eskertzen dizut.

...

Nik uste dut zeharka honekin zerikusia daukana... ikusten ditugun... gu gainera tutore bezala, ni ere tutore naiz, eta tutoreek hitz egiten genuen gure artean, geroz eta gehiago aurkitzen garela ikasleen arazo, ez dakit arazo psikologikoa diren edo ze motatakoak diren, baina bai etxean izan dituzten arazoengatik edo beraiek dituzten jarrera edo portaera txarretatik eta hor bai irakasleok aurkitzen ginen oso galduta eta askotan ez dakizu zer egin.

Hori teknikoki esan dezakegu adibidez, arrisku sozialean dauden...

Izan daiteke, izan daiteke. Orduan bai eskatzen genuen eta aurten zuzendaritzari eskaera egin diogu egiten diren zeharkako ikastaroetan edo ea posible izango litzatekeen, ez dakit psikologoekin hitz egin behar den edo... ze hemen ez daukagu inongo, Lanbide Heziketan ez dago inongo ez orientatzailearik, ez psikologiako laguntzarik, ez dago ezertxo ere. Lehen Hezkuntzan badago, Bigarren Hezkuntzan ere, baina iristen gara Lanbide Heziketara eta unibertsitatean ere nik uste dut antzeko zerbait dela eta alde horretatik guk ez dakigu eta askotan psikologo funtzioak egin behar ditugu, ze batek kontaktzen dizu bere arazoa eta askotan geratzen zara, puff... eta arazo larriak izan ditugu, bai etxean dituzten arazoengatik edo norberak dituen arazoengatik.

Eta horrelako kasuetan adibidez, zuek daukazuen ze errekurtso? Daukazuen da norberaren...

Norbera eta norberak duen esperientziaren arabera, ze frustrazioarena oso tipikoa da. Ikasle bat etorri, hasi "Nik ezin dut", "utzi egin dut", hori da nahiko tipikoa. Eta gero dituzu etxean arazoak dituztenak.

Detektatzen duzuna arrisku sozial egoera batean dagoena...

Bai, orduan, horrelako kasuetan zer egin. Horrekin nik uste dut formakuntza beharko genukeela, geroz eta gehiago, ze ikusten da egoera zein den eta geroz eta kasu gehiago entzuten ditugu hemen eta izaten ditugu. Orduan, horren haritik ere nik uste dut formakuntza bat beharko genukeela edo zerbait, zerbait bai. Guk hori ere, faltan botatzen dugu guk hori. Aurten guk proposatu dugu eta komentatu dugu datorren urterako edo, agian tutoretzat edo, zerbait antolatzen dela, ze batzuetan da: "beno, eta nik zer esaten dizut?" aurrean izan negar baten eta oso gogorra da eta ez zaude prestatuta, zuk pertsona bezala zaren bezalakoa...

Bai, bai bai, zuk pertsona bezala daukazu errekurtsoen arabera, ez dakizuna da erantzun horrek balio dion berari.

Klaru, eta askotan ez dakizu ondo egiten ari naizen egiten ari naizena, nik ematen aholkuak gero berdin

Noski, igual dira nire semeari emango nizkiokeenak eta igual berak ez ditu horiek behar...

Noski, eta ordun atal hori bai... hutsune asko ikusten dudala.

Iruditzen zait oso ekarpen interesgarria dela. Horrek beste lerro bat irekiko liguke Lanbide Heziketan, pertsonen beharrak eta arrisku sozialean dagoen tipologia bat, eta gero eta gehiago, ze azkenean...

Erdi-mailara etortzen da jendea, prezipitatu egia... nik entzuten ditudan... entzuten dituzu gauza asko eta horrek azken batean, gelan eragina dauka eta askotan baten portaera ez dakizu zergatik den. Horren atzetik gauza asko egon daitezke, baina noski, hori nola lantzen duzu.

Bai, hor azkenen motxila bat da eta motxila hori...

Bai, oso zaila da guzti hori lantzea.

Eta gero nik uste dut urte eta erdian hori dena egiteko...

Oso denbora gutxi da, berehala... brum! Bai, baita ere asko esaten dena, frustrazioa, frakaso eskolarra... Aztertzea zergatik ematen den konplikatua da. Egia da hor baliabide gehiago dauzkagula eremu horretan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza.

Bai, horra arte bai, eta gero, pum

Bai, hor mozketa bat dago. Oso ondo.

MIGEL MARI IMAZ MINTEGI (M4)

Adina: 39

Ikasketak: ingenieritza teknikoa

Irakasle bezala denbora: 11 urte

Tolosaldea LHn zenbat urte: 10

Agertoki berriak programan zenbat denbora darama:1

Zein maila eta zein ziklotan lantzen ari da: Mantenua 1 eta 2. maila

Aplikazioa bakarrik ala taldean: taldean

Escenarios gu ofizialki, bueno proiektu txertatzeko erresponsabilitate horrekin bi lagun ari gara baina beste lagun, ikusiko duzu, Julen eta Igor hori euren borondatez...

- Zu ze ataletan zaude?

Mantentzekoan, Enekoitzekin batera. Gu, Enekoitz eta biak gaude baina egia esan mantentze zikloko bost irakasle, bostak ari gara sartuta metodologia honetan, ze hausnarketan egin genuenean denon erabakia izan zen ehuneko ehun denak sartzea, hor zeharkako irakasleekin pixkanaka ari gara, bueno zeharkako irakasleekin baino, zeharkako gaiak ematen dituztenekin. Bueno, horiekin ari gara pixka bat gure aldea tiratzeko asmoekin, baina bueno, puntua horixe da ez garela bi bakarrik, baizik eta gure kasuan, nahiz eta izenak bina egon, alor osoa garela.

- Bueno, pasa nizkion Andoniri galdera batzuk, egingo dizkizut galdera batzuk eta bueno, zuk erantzuten dizkidazu eta gero badago atal bat nahi duzuna komentatzeko. Argi dago Escenarios programan parte hartu duzu. Aurretik antzeko programaren batean parte hartua zara?

Ez, programa bezala ez dut parterik hartu, baina bueno, jarraipena azken bi-hiru urte honetan bai, igual nibel baxuagoko mailatan ibili gara begira bata eta beste, Amara-Berri proiektuarekin eta horiekin bastante jarraitu ditut, eta kontua izan zen hori nola lekualdatzen genuen gure errealtatera. Eta bueno, proiektu bereziak ez eta parte hartu ez, baina bueno, lehen esan duzun CREANOVaren jarraipena egin dut, bai.

- Zerk eraman zintuen Escenariosen zure izena ematea?

Bueno, Escenariosen izena ematea, Escenarios izan da ondorio bat gehiago. Escenariosen guk erabaki genuenean sartzea, ez genuen Escenariosen sartzea, baizik eta metodologia aldaketa egitea erabaki genuen. Metodologia aldaketa hori zela eta, hasi ginen pixka bat begiratzen ea gure antzeko ikasketak burutzen diren lekuetan ze esperientzi ote zegoen eta bat eta beste. Eta hemen inguruan bazeuden baina beti erreferente bezala Europako beste zenbait herrialde jotzen ziren eta hasi ginen horietako leku batea ikustea juteko ideiarekin. Eta bueno, hortik nondik jo ez genekien, teknika(44.20) jo genuen kanpo harremanak ematen dituen Jose Luis Fernandez Maurekin harremanetan jartzeko eta ea nola bideratzen zen ikusteko. Bi hilabetez Escenariosok, guk jakin, bagenekien Escenarios zegoela, baina egia esan ez ginen proiektu horren bila joan, baizik eta beste bidetik joan ginen eta ondorioz etorri gara aurten lehenengo aldiz Escenariosera.

- Ondorioz etorri zen. Zuen baitan irakasle bezala kezka bat zegoen eta bueno...

Bai, kezka hori zegoen batik bat orain arte, orain dela gutxi arte gauzak oso ondo funtzionatu du eta ez gara izan jakitun ezertaz nik uste dut. Ikasteak etortzen

ziren, erlazio ona zegoen eta irten orduko lana zeukaten. Baina azkeneko urte hauetan, beste garai batzuk iritsi daudenean, bale, erlazioa on horrek mantentzen du, klase emateko erak ondo mantentzen du, baina ikaslea lanik gabe eta gainera besoak gurutzatuta. Lan eskaintzekin, hona etorri galdetu eta: "hi, eskaintza badago?" Eta gero ikusten genuen, ezetz! Baina alde batetik, hauek besoak gurutzatuta eskaintza iritsiko zain eta beste alde batetik, egiten genuen hausnarketa azken urteetako ikasleei ze lanetan bukatu duten jarraipen bat egin eta hausnarketa egin duenak izan zen: "ene, guk ematen diegun gaitegietatik edo gai teknikoetatik lanen bukatzen duenak gai horietan ehuneko berrogeita hamarra ez da iristen". Eta esaten genuen: "ez da posible hemen gu ikasketa batzuk ematen ditugu eta batek Arotzeren (46:00) bukatzen badin badu guk mantentzen dugu eta klimatizazioko ikasketak eman eta batek Arotzeren bukatzen baldin badu, ba egin dituen ikasketak ez du ezertarako ez izatea; hori ez da posible". Orduan planteamendua izan zen hori, hartu behar dugu gure gai teknikoak pixka bat erreminta bezala edo aitzakia bezala, baina bai beste gauza batzuk erakusteko ere bai. Hor sartu ginen pixka bat gaitasun sozialagoak direnak eta bueno, hortik heldu ginen.

- Zuretzako pertsonalki Escenariosek zer suposatu du?

Escenariosek pertsonalki zer suposatu du? Hasteko metodologia aldaketarako, ni iaz proba batzuk egiten hasi nintzen beste ezertan hasi baino lehen eta kanbio oso sakon bat. Egia esan ni nahiko astuna nintzen klasean eta kanbio sakona izan da. Egia esan gauzak orain ikusten ditut gaizki egin ditudala aldaketa horretan, utzi ditudalako euren kasa, baina euren kasa suposatuz haiek kontrolatuko direla, eta bueno ikusita ohiturik ez daukatela, azkenean haien kasa bakarrik utzita, etekin oso eskasa izan da. Orduan, Escenariosek zertarako balio izan didan? Pixka bat zen, batik bat nola ebaluatu, nola jarraipena egin, gauza horiek ikusi ahal izateko, ze ni oso politikoa naiz ebaluazioarekin. Baina... ez ebaluazio metodoekin ez e, ebaluazioarekin berarekin.

- Escenariosen planteatu dena, alegia?

Ez, ez. Escenarios niretzat oso ona izan da, behintzat esperientzia diferenteak ikusi ditugulako eta erreminta diferenteak ikusi ditugulako, kakotxa artean. Aurtengo urtea niretzat berezia izan da baita ere, ni urtarrila arte bajan egon naiz, orduan Escenariosen sartu irailen bai baina niri ez saturatu urtarriletik aurrera sartu naiz.

- Zure klasean, adibidez, lantzen dituzu zeharkako konpetentziak?

Nahi nituzke, ez dakit kontziente gean edo ez, baina nik pixka bat eurei bizimodua bilatzeko eskatzen diedanean, guk planteamendua egin duguna aurrean egia esan ez zaigu oso ondo atera, baina aurtengo asmoa zen gaitasun sozialak aipatzen dituen honetan, alde batetik, euren arten tiratzen jakitea, euren artean transmisio lanak egiten jakitea, beste alde batetik, edozein aurkezpen egin behar denean, berdin dio klaseko euren taldekideen aurrean ere, txurroak bezala jartzen dira eta normala da, gu ere hala jartzen ginen, baina hori pixka bat lantzeko, kanpo harremanak pixka bat nahi genien sartu arazi. Eta nola? Ba edozein produktu, edozein lanetan, atal teknikoak dagokionez, gu ez izatea erreferente bakarrak, badauzkagu harremanak enpresa ezberdinekin, jende jakin ezberdinekin, teknikoak direnak; batzuk gure ikasle ohiak izandakoak, beste ikastaroetatik ezagutu ditugunak eta bat eta beste. Orduan zen, eurei eman bai korreo bidez aurretik hitz eginda gainera, korreo bidez edo telefonoz edozein kontsulta egiteko aukera hori. Baina zuzenean ikasleek zezakeen besteei, gu bakarrik izan gabe eta kanporako barrera hori ea hausten zituzten.

- Hori zein mailatan egin duzue, goi ?

Ez, guk goi-mailako zikloan bakarrik.

- Ze ikasgaietan zehazki lantzen duzu zuk?

Bueno, nik.... berdina da baina guk aurten programazioa egin genuenean pixka bat izan zen, moduluka joan ordez, blokeka joatea. Hartu ziklo bakoitzean zer lantzen diren eta hasieran berokuntza lantzen ari bada, ba berokuntzarekin lotutako eten bat, modulu ezberdinetan koordinatuta eramatea. Gai batzuk beti ibiltzen dira kanpo SOKON, baina ahal dela, ez baten aritu kontrola airegdatu bezala eta bestean exekuzioa berokuntzakoa, ba dena batera koordinatu, modu koordinatu batean.

- Zure hezkuntza praktikan, ze zeharkako konpetentzia daukazu izendatuta zure baitan inportanteak bezala eta lantzen dituzunak?

Bueno, lantzen ditudanak, bueno esango dizkizut zeintzuk daukadan izendatuta, landu nahiko nituzkeenak. Alde batetik, autonomia, bakoitza autonomia izatea lehen esan dudan bizi hori bilatzeko eta bat eta beste. Autonomia izateak ez du esan nahi pertsonak berak bere kasa egon behar duenik bakarrik, hor sartzen da auzolan kultura, niretzat oso inportantea dena eta hor sartzen da guk gure aldetik oraindik landu ez ditugun esparru batzuk: auzolana aipatzen dugunean da, besteentzako lan egitea, gero bueltak etorriko dira, besteentzako lanak ez du esan nahi geure aldetik izan behar denik beti baina bueno, nik nirea utzi alde batera eta zuri lagunduko dizut. Eta hor izan dugu adibidez oso polita: guk orain dela bi urte, talde batean egon ginen langile batzuk, hiru langile ziren eta haiek egunez lana egiten zuten eta orduan, klasera ez ziren etortzen, baina aparte arratsaldetan laguntzeko proposamena egin genien. Planteatu genien ikasleei eta ikasle batzuk hasi ziren gelditzen arratsaldetan langile horiei erakusten eta hori zen adibide oso polit bat. Ba, hauek nola ari diren arratsaldetan gelditzen, langile horiek gauzak komentatzeko, eta ordun, auzolanaren adibide polit bat, ba hortxe.

- Gero beste tema bat inportantea baita ere zen elkarlana, landu nahi genuena. Bakoitzak egin dezake bere lana, baina talde bakoitzak edo dena delakoak, bakoitzak bere lana egitetik aparte, zergatik ez aprobetxatu besteetatik, ez? Edo bueno, nik helburu bat daukat, zuk beste bat daukazu, baina biok, bakoitzak bere helburuaren atzetik, baina batera lana egin. Eta hor elkarlana sartzen zen.

Eta gero dira beste... bueno autonomia esaten dugunean ere gauza asko sartzen dira. Autonomia aipatzen denean ez da lan egiteko garaian bakarrik, baizik eta matrikula egiterako garaian konpromiso batzuk bai asistentzia eta. Orduan, bloke fuerte bezala, izan zitekeen autonomia, elkarlana, auzolana eta horietatik... eta gero bueno, atal pertsonalean, errespetua eta hori dena barruan sartzen dira.

- Adibidez, zergatik aukeratu lehenesten dituzu horiek eta ez beste batzuk?

Nik, orain auzolana oso modan jartzen ari den zerbait delako, hitz egiten denean ez zen bakarrik enpresa ireki bati buruz hitz egiten den garaian ere, nik uste dut tendentzia nabarmena dela horretara juteko. Azken batean gero eta gehiago ari dira esaten, ba elkarren artean koordinatuta eta egindako lana izan behar duela, bueno, aurrera aterako direnak behintzat hori izan behar duela. Auzolanak lehen oso fruitu onak eman zituen, batik bat baserriarren garaian auzolana ulertzen zena, ba kamino bat litzateke eta bat eta beste eta bueno, ematen du harrezkero ez dagoela horren beharrik, baina igual izango da oso indibidualistak bihurtu garelako. Eta orain tendentzia oso ona nabarmenak direla auzolanekin.

- Badaukazu sentsazioa adibidez beste batzuk landu beharko zenituzkeela eta ez ditugula lantzen?

Beste...?

- Beste zeharkako kompetentzia batzuk tinteroan gelditzen zaizkigunak?

Bai, bai, bai. Hasiko bagina bila, mordoxka bat izango lirateke. Zentzu horretan, eskolari berari kritiko dezente egin diogu. Orain arte elkarlana eta hori planteatu ditugunean ere, elkarlana bai, elkarlana oso polita esaten, baina eskolak ze elkarlan egiten du? bailara batera zentratzen gara eta hemen elkarren artean koordinatuta... ba eskolak, eta seguru asko baietz esango dizu, baina guri eredu hori ez zaigu iristen behintzat. Eskola bailarako erreferente izan daitekeena Tolosaldea Garatzen, Tolosaldea Garatzenetik eskola bat, instituzio, udaletxeak, gizartea bera eta azken batean ikusi beharko litzateke hemen, gizarte honek zer eskatzen duen eta zer eskatu eta ze behar dauzkan arabera, ba horretara egokitu. Baina noski, eskolak alde batetik lana eta enpresa beste bide batetik. Gu ari bagara auzolana bultzatu nahian eta enpresak orain arteko irizpideekin jarraitzen baldin badute, hor zerbaitek ez du behar bezala funtzionatzen. Ba pixka bat izango litzateke lotuta joateko zer bait.

- Zentzu horretan zuek eskolari eskatzen diozue inplikazio gehiago zuek egiten ari zareten lan horrek bere esparru politikoagoan eragina izateko, ez?

Bai, bai. Gu lan egiten ari gara, gu azken batean klase barruko lana egiten ari gara, baina lan hori hemendik ateratzeko ona izango litzateke eskola bera ere horrelako gauzetan sartzea. Gu hasi ginen aurtan Tolosaldea Garatzenekoekin, eta bata beste, alorrean izenean bilera batzuk konbokatuta, hau lantzen ari gara zuekin batera lantzeko, baina handik ere ez da ikusten ezer... "Bai, oso ondo, hau eta bestea, bale... Tolosaldea Garatzen... zuen ikastetxea dugu". Bai, hala egongo duk, baina hori hemen ikasle batek ez daki, eta ikasle batek notatu behar du hori, eta bailararekin notatu behar duzu. Tolosaldeko istorioa oso polita da. Ikastetxe honetan lehenengo aldiz etortzen den irakasle batek Tolosan herrian bertan galdetzen du: "Tolosaldea ikastetxea non dago?" galdetzen duzu eta ez du Tolosaldea ikastetxerik ezagutzen eta lehenago Maestriako zena.... Erreferente hori ere...

- Nik Orixen ikasi nuelako.

Ba Tolosaldea ez du jendeak ezagutzen izen horrekin. Orduan, zerbaitek ez du funtzionatzen. Zerbaitek ez, seguru asko, zerbaitek baino gehiago, baina bueno.

- Interesantea da hori. Zergatik da zuretzat, Miguel Mari, garrantzitsua zeharkako kompetentziak lantzea?

Ba, ba geroz eta gehiago bizimoduak ikasle hauei hori eskatuko dielako. Nik ez dut sineste, orain klimatizazioa ikasi... bueno hauek ea zortea duten, baina orain segitu batean, eta hori ez da nik egindako ikerketak, hor... hauek lan ez, etengabe aldatu beharko dute ez lanekoz bakarrik, bizitzeko lekuz. Justu hauek ez dakit, baina segituan datozen belaunaldiek bai. Lehengoan egon ginen komentatzen hori ez? Etortzen da hona kanpotar bat, Ekuadorretik edo, eta ez dauka ikasketarik ezta ezer, eta agian zerbitzari postua bilatzen hor. Eta hemen zikloa bukatua daukan batek, bere lan eskaintza hori iritsi arte, besoak gurutzatuta egoten da. Egoten da bakar bat bilatzen duena, baina izaten da pertsona bat, orokorra izan beharko litzatekeena. Orduan, zeharkako balio hori balioko die bilatzeko, bueno ba hemendik ezin badut jo, ba hona jo beharko dut.

- Sartuko naiz galdetzea gehiago metodologia kontuan. Adibidez, zeharkako konpetentziak behin identifikatuta dauzkazula, gero zure gelan sartzen zarenean, nola lantzen dituzu? Esan nahi dut, ze aktibitate konkretu daukazu, metodologia konkretu bat daukazu?

Ea, dena zuzentzen ari gara, aurten hasi gara, iaz esango genuke metodo tradizionala bukatzetik, aurten ehuneko ehun, horretan bastante ez dakit atrebitu edo balienteak izan gara eta egia esan nahiko traketsak horretan.

- Hori badakizu irakaskuntzan oso ona dela ezta?

Bai, egia esan gauzak gaizki egiten ez ditun batek, gauzak berrik egiten ez dituen seinale. Egia esan aurten zapore txarrarekin gaude, batik bat bigarren mailakoekin. Zein aktibitate egiten ditugun? Bueno, aktibitateak baino gehiago dira lan egiteko formak. Momentu honetan egiten ari naizena da, ze bueno esaten dizut, urtarrila arte bajaran egon nintzen, urtarrilean hasi nintzen, bueno irakasle bat egon zen ordura arte, gero ni sartu nintzen, azkenean behar izan nuen hilabete bat, azterketa bat jarri nien arte, konturatzeko ezer ez ziela ari ikasten. Orduan, hitz egin genuen, eta bueno, baloia hartu genuen irakasleek eta baita ikasleak teilatuan. Eta momentu honetan jarraitzen ari naizen metodologia eta edozein lan egin behar denean, lana nire kasuan, energia berriztatzearen inguruan, ba eguzki indar termikoko instalazio bat. Eurek eskatu zioten eta guk hausnarketa egin dugu, gu ere ari gara eskatzen hauek metodo tradizionalatik etorri eta bat-batean ehuneko-ehuneko saltoa ematea. Eta euren eskaera izan zen, noizean behin klase teorikoren bat edo... ba igual trantsizioko garai batean horrela izan behar du baina! Eta bueno, orain momentu honetan behintzat, eskatu zidaten hori... konturatu nintzenean zer zen ezin zena egin, klase teoriko batzuk eskatu zidaten, oinarri batzuk hartzeko, ze bueno, nik materiala pasatzen nien eta bat eta beste, baina material hori jarraitzen eta, ez daukate ohiturarik. Orduan, klase teoriko...

- Ez dituzte irakurtzen ematen zaizkien materialak?

Ez, eta irakurri irakurtzen hasten badira ere, ez badira gogo handirekin ibiltzen, pasatu. . Gero lan bat egin behar duten garaian ez dira kapaz. Orain orduan esaten ari nintzena, aurkezten dugu zer egin behar dugun, ze helburu dauzkagun lan honekin eta ba teoriko atal txiki bat ematen diet. Atal txiki horrek lehen bezain aspergarria izaten jarraitzen du, bai beraiantzat eta bai niretzat eta gero behintzat teoria hori emandakoan, nik esaten diet lanak hau eta hau eta hau eduki behar ditu eta hortik aurrera hasten dira puntu horiek jorratzen. Eta gero, haien kontrolari dagokionez, ireki genuen dokumentu bat Google docs-en, hiru orri dauzkanak eta hiru orri horietatik lehengo orria da, niretzat, irakasleentzat, ba ni noa esaten zein kontzeptu teoriko landu ditugun eta zeintzuk ez. Hortik badakite eurek zein atal daukaten landuta eta zein ze. Eta bigarren orria da eurentzat eta bigarren orri horretan azaltzen da: klasean landutako kontzeptu teoriko hori ulertu dut, bai edo ez. Ezezkotan talde bat baldin badago, ba arratsalde batean edo geratuko ginateke eta bai baldin bada, esan behar didazue ea etxean landu duzuen edo klaseko atalarekin nahikoa izan duzuen. Orduan bi galdera horiek, kontzeptu teoriko bakoitzarekin dira, kontzeptu horiek DC batetik hartutako edukiak. Zuzenean DC baten hartutakoak DCBn dauden berdin hasiko ginen, askotan "honek zer esan nahi du?" eta bai, DCBn horrela dator. Orduan, da, eduki horiek ulertu ditut, bai edo ez. Eta behin eduki horiek denak ulertuta dauzkatenean, lanari dagokionez hasten dira. Nik ulertuta dauzkaten gai horiek ulertu ditudala ziurtatzeko, hirugarren orrira pasatzen diet eta esaten diet: puntu hau eduki hau azaltzen duzu laneko bigarren orrian edo hirugarren orrian; beste puntu hau zazpigarren orrian, beste puntu hau hirugarren orrian. Orduan, doaz puntu guztiak lotzen hemen daukazu daukazun elementuak. Orduan, euren lana hartuko dut nik eta lan horretan joango naiz ikusten hori egia den edo ez. Puntu denak teorikoki landuta

dauzkatenean, ze taldeka ari dira lanean, lauко taldetan ari dira lanean, hori egindakoa, ia bakarkako ebaluaziora pasako ginateke. Lan hori taldean egin dute eta bata besteara aprobe txatu ahal izango du, normalean bezala. Gero jarriko diet, basiko basikoa eta txikia, baina behintzat indibiduala izango den proba teoriko bat, test erakoa edo zerbait.

- Adibidez, badaukazu zeharkako... ebaluaketan..

Agian ez dizut gehiegi erantzun konkretuki zer egiten ari naizena. Bueno, talde lana, alde batetik, esan dut taldeka ari dira lan egiten eta gero beti, ez nik bakarrik, irakasleen artean aritzen gara hizketan, talde bakoitzetik bati emango diogu azalpen bat, baina zuek zuen taldean jorra ezazue hori. Eta ez hori bakarrik, "talde buru" zaretenok, zuen artean joan zaitezte gauzak zeazten. Ba... azken batean, zure...

- Izendatzen duzue talde buru bat?

Teorikoki hasieran asmoa hori zen, orain momentu honetan egia esan talde buruak hartzen ditudanean, talde buruak kaxotx artean, ze izaten dira talde honetatik etorri zu, etorri zu eta etorri zu, bestela beti berdinak ibiltzen ziren bueltara. Asmoa zen hori, talde buruak edukitzeko, baina talde buru hori ere bakoitzak daukan ardurak errotatzen joateko.

- Zenbat pertsonatako klaseaz hitz egiten ari gara?

Hamasei.

- Bale. Bueno, ebaluaketan "la madre del cordero" uste dut, ez? Badaukazu lantzen dituzun zeharkako konpetentzia horiek ebaluatzeko metodo planteamendu zehatzik?

Bai, bai. Baina konturatzen naiz zehatzak eta bai, baina gero betetzeko garaian ez direla... oso zaila da. Dauzkagu ebaluatzeko auzolan kultura, nola ebaluatzen dugu? Eta hor dauzkagu jarrita irizpide batzuk, hiru irizpide, dira: besteei laguntzen die, besteek egiten dutena ez zaio axola eta ez da ezertan sartzen, horrelako irizpideak. Baina besteei laguntzen die hori, bai edo ez jakiteko garaian, pixka bat bada subjektiboa, baina ebaluatzeko garaian...

- Zaila da lantzea zeharkako konpetentzien garapena?

Bai, horregatik esaten nizuna hasieran, ebaluazioan, ebaluazio epea orokorrean hartuta, ebaluazioarekiko oso kritikoa naizela. Gauza batzuk pentsatzen dudalako landu behar direla bai, baina ebaluatu ezinezkoa. Puntualitatea neurtzea oso erraza da, asistentzia neurtzea oso erraza da, elkarlana ebaluatzea, bai, elkarren artean lana egin dute, ondo koordinatu dute, bai bai, baina...

- Ezinezkoa da, Miguel mari edo ez gaude prestatuta?

Bitako bat izan daiteke. Ez gaude prestatuta, seguru. Eta ezinezkoa edo ahal den, hor nire dudak ditut.

- Bale, ebaluatzeko modu zehatz hori zer da, irizpide, indikadore batzuen arabera? Excel orri batean... jasotzen joaten gea egunero?

Bueno, egunero-egunero ez da izaten. Egunero jasotzen diren datuak izaten dira etorri den edo ez, asistentzia eta puntualitateaz aparte ea eguneroko betebeharrak egin dituen edo ez. Eguneroko betebeharrak dira, bueno ba klasean jartzen dena

“gaur puntu hau egin behar duzue” eta horretatik aparte kontroleko orri horretan, bakoitzak non zoazten adierazi behar duzue. Nik kontrol orria bete gabe ikusten badut bai, jartzen diot: “Etorri da, bai, baina betebeharrak ez dituzu egin”.

- Zailtasun handi handiena zure lana garatzeko garaian, kontziente izanda zeharkako konpetentziak lantzea transzendentala dela, zertan topatzen zara zailtasun handienekin?

Zailtasun handiena? Ebaluatzearekin. Egia da lantzeko garaian ere ez dela erraza, baina bueno, ebaluatzea ez dut ikusten... eta bueno, uste dut gainera hortik mundu mailan ere unibertsitate aurreratu batzuetan eta, ari direla ebaluazio hori nahiko kritikan edo jartzen.

Den hori gehituta, ondo gaizki bai edo ez, bueno, agian ez luke horrela behar...

- Gero adibidez, zein mekanismo daukazu zailtasun horien aurrean... badaukazu mekanismoak, edo?

Mekanismo inportanteenak alor-kideak. Aurtengo urtea izan da lehenengo urtea sartu garena honetan ehuneko ehunean. Eta hasierako ebaluaketan eta, joan ginen edo gehiago joan ziren ni bajaran egon nintzelako, pixka bat proba egiten bakoitzak bere aldetik ea zein erreminta izango zen hoberena. Bigarrean ia bateratzen hasi ginen, eta hirugarrenean bateratu, baina datorren urterako aldaketa handiegia daukagu, hala ere.

- Gero, laguntzarik jasotzen duzue?

Laguntza zentzu horretan, teknikako laguntza ona da. Gu gauza batzuetan, zerbaitetan konturatzen ez ginenak, euren artean ebaluazioa nola egin, eta adibide konkretu bat zen: “Nik ebaluatzen dut zuek egindako lana eta hemen daukazue jarri ditudan irizpideen arabera hamabost puntu, eta zuei ematen badizuet hamabost puntu, ezin duzue puntuazio berdina inork eduki. Hamabost puntu banatu zuen artean”. Holako gauzetan, ba teknika batzuk izan dira baliagarriak, ez gara gehiegi sartu, zailtasun mordoa izan dugulako, baina badira.

- Material, zeharkako konpetentziak lantzerako garaian, material espezifiko bat erabili duzu? Edo ariketa, esperientzia material didaktikoren bat, zure dohainak

Ba hor ikusi ditudan adibide batzuetatik, ez teknikoak bakarrik. Teknika batzuk, bai Amara-Berri eta horietatik, igual ez gehiegi landu ditugunak, igual pendiente dauzkagunak oraindik, baina bada zerbait hor.

- Zuek arakatu duzuen eta beste batzuek egin duten hori egokitu ikastetxearen errealitatera. Baina zuk adibidez, material bat sortu; “bueno, sortuko dugu zerbait alorrean hau lantzeko”. Horrelako ariketa konkretu bat...

Ez, bueno ez eta bai. Guk badaukagu proiektu gai bat eta proiektu hori printzipioz zen kanpoko jendearekin landu beharko duzue, kasu konkretuetan baserritar batekin jarri harremanetan eta Tolomendiko batekin ere harremanetan egon dira, baina azkenean etekinik ez du atera. Baziren, lehen esan dudana, bailarako... guk pentsatzen genuelako ikastetxeak zerbitzu bat eman behar duela, ba bailaran bertan ere, zerbitzua ez matrikulatzen ikasi bakarrik, Tolomenditik badator zerbait, indarra behar dela, zergatik ez dugu sartu behar proiektuan bertan. Zerbitzu bat eman, elkarlanean gauzak garatu ahal izateko. Bueno, ba zentzu horretan, ariketa konkretu batzuk izan dira, guk asmatu ordez, kanpotik etorri eta proban jartzen ditugunak. Emaizta kaskarra izan da. Ez dakit oso arrazoi eskasa da, baina...

taldeari nahiko errebotatzen digu, taldea bera, orain dela bi urte izan genuen talde bat,... haiek beste era batera funtzionatzen zuen. Sistema tradizional bat izatetik beste era batera... eta orain dela bost urte izan genuen beste talde bat, beti izan da talde... Sistema tradizionalan notak "klasean txintxo" eta.. azaltzen dira, baina gero inizatiba aldetik, pertsona jakin batzuetatik espero duzuna "pertsona honek seguru tiratzen duela", eta ez.

- Zuk pertsonalki zer botatzen duzu faltan zeharkako konpetentziak lantzeko garaian, zuri lagunduko lizukeena? zer behar duzu?

Ba lehen esan dudana, ebaluaketan daukagu gabezi handiena. Ebaluatzen tresnak berriro ere errepikatzen dizut, zeharkako konpetentzia batzuk, ebaluazio tresna ona edukita ere, ez dakit ebaluatzen izan beharko lukeen.

- Ikasgelan metodologiarekin inplementatzeko eta formazio aldetik ematen zaizun guzti hori inplementatzeko ondo ikusten zara, esan nahi dut...

Ondo ikusten naiz. Eskala batean zerotik hamarrera hamarrea ez naiz ikusten, besteekin paretsu. Ondo ikusten naiz, horrek ez du esan nahi beharrik ez dudarik notatzen, e? lehen esandakoa, teknikako gauzatan momentu jakin batzuetan...

- Bale, bueno, nik printzipioz ez daukat... nahi baduzu zerbaiteko komentatu ikerketa honetan.

Ez dakit, agian gidioetik kanpo, gidioaren barruan segitu. Seguru asko irakasleonek aldetik ere, zeharkako gaiak lantzeko eta bat eta beste, seguru asko bai ikastaro asko izaten dira, interbentzioa eta ez dakit zer. Baina bestelako ez dakit psikologi, pedagogi zein haur aditu... pedagogia bakarrik ez, psikologi ikuspegi bat ere bai, baina ez ikasketetan zentratuta, baizik eta orokorrean gizartean zentratuta. Adibidez konkretua esaterako: nik izan ditudan istorioekin eta bat eta beste, bueno psikologo batekin nabil e? eta oraintxe ari naiz konturatzeko txokoetako sistema ez? Txokoetako sistema, zertan oinarritzen da? Nik ez nekien hori, nik uste nuen zela behintzat leku identifikatu batean edukitzeko umeak, momentu bakoitzean zer egin behar den eta genero berdintasuna lantzeko eta hori dena bai, baina atera dudana ondorioetako bat da dagoela pertsonen sentimenduak adierazteko... ba, triste txokoa, alai txokoa, negar txokoa... ostras!! ba bai, badaude gabezi batzuk. Guk txokoen eredu hartu eta eredu hori hona trasladatzen genuen, ba hau marrazketa egiteko txokoa... ostras, baina gauza asko jakin gabe oinarria zein da. Gero baita ere etorkizunean etortzen den generazioak seguru asko, askoz ere landuago ekarriko duela tema hori eta bueno, landu dugun metodologia hau, ba hobeto joango zaiela, ze hauek dira, hona iristen diren jendea, asko dira ba bai batxilergoan ibili direnak "a ostia limpia" batetik bestera atera ezinda... jende oso gutxi izaten da kurtsorik galdu gabe iristen dena. Orduan, hasieran galdetzen diezu ea zein den haien helburua eta haiek nahi dute titulua eta lanean hasi. Eta guk esaten diegu: joe, titulua, inork zalantzan jartzen duzue titulua aterako duzuela? Inork zalantzan jartzen duzue? Joe, titulua ateratzeko edo duda egiten duzue aterako duzuen edo? Orduan, ez zaitetz helburu horrekin, etorri beste... aprobetxatu, hemen zaudete. Sekula kalkulatu duzue edo gutxi gora behera numeroa bota duzue ze kostatzen den zuen ikasketen prozesua bi urte hauetan hemen? Eta hori da gizarteak eskaintzen dizuen aukera, orduan, aprobetxatu ezazue beste era batera, baina ez, gure garaian hala izan ginen eta ikasketak ziren lehen bai-lehen bukatu eta bakea hartzeko tema, eta oraindik ere...

- Irakasleentzat desmotibazioaz hitz egiten ari zara ez? Ia ez bakarrik desmotibazio formatibo hori, baizik eta ia sozialki ere itxi puntu horrekin, ez?

Bai, nahi dute papera eta lanean hasi. Erlazionatzen delako papera lanarekin, eta hori lehen esan duguna, orain arte izan da, urte batzuetan izan da, baina hori...

- Gizarte aldaketa hori ez da erantzuten ari, ez? Lanbide heziketaren ikuspegitik ez dela erantzuten ari, ikaslea azkenean dagoela onura ekonomikoaren garaian eskema edo txiparekin?

Bai, oraindik nik uste dut hortxe gaudela. Guri etortzen zaigun ikasleak, hemeretzi-hogei urteko jendea oraindik hor daude.

- Hor atera delako, kezkatzen zaitu ikasle zenbaiten arrisku sozial egoerak? Esan nahi dut, arrisku soziala ulertuta bere behar sozial-afektiboak ez daudela behar bezala erantzunda? Eta orduan bueno, hona dator, ikaslearen eragina dauka...

Badauzkagu horrelako jendea, eta bai, bai, noski. Baina hori transmititu beharko litzateke bere taldekideengana. Ni kezkatzea hortaz baino interesgarriagoa izango litzateke ez hartzea bitxo arraro bat bezala.

- Baina ikastetxeak ez dauzka baliabideak ikaslearen behar horiek erantzuteko,

Bueno, izan dugu kasu bat bi urte hauetan, eta aurretik izan ditugu beste kasu batzuk, baina horiek beste era batekoak ziren. Baina hemen izan dugu kasu bat aurten hemen daukaguna, eta laz psikologo bat eta ekarri behar izan genuen. Ikastetxeak bertan agian ez daude, gu ez gaude prestatuta horretarako, baina alde horretatik plus bat dago segituan inplikatzeko dena.

- Konpromiso hori badago.

Guk eskatu ahal izateko eta ez garela... horregatik esaten nuen, atal tekniko eta ikasgelan zentratutako ikasketa pedagogiko horietatik aparte, sozialki begiratutako beste zerbait beharko genukeela, ze azken batean erantzuten ari garena, erantzuten edo eskaintzen ari garena ez da klimatizazio jendea formatzea, ez, ez. Da gizartea formatzea eta gizarteko atal hori, bueno, kasu honetan erreminta bezala klimatizazioko gaiak ibilita, baina ez klimatizazioko langileak formatzeko bakarrik.

- Hori oso interesantea da, eta nik uste dut ondorio nabarmenetako bat izango dela hemendik aterako duguna. Nik egia esan uste dut oso ondo erantzun duzula nahi nuen guztia. Ez dakit, zerbait erantsi nahi baduzu...

Ez dakit, esan dugunarekin... gai berdinari buelta gehiago eman genitzake, baina bueno.

- Bale, ba mila esker, Miguel Mari.

...

Aktiboak ez dira ikasleak eta irakaslea bakarrik. Ikaslea gero langile izango da. Langilea den momentutik, bueno, ikaslea den momentutik eta jaiotzen den momentutik, gizarteko parte ere bada, orduan gizarteko parte denarekin, halako nahas-mahas bat egin beharko litzateke eta gizartea nolakoa den hortik tira eta ikasketak ere horretara egokitu. Orain arte denak izan dira arlo teknikora bideratuta, nibel baxuetatik hasita. Matematika erakusten zenean, zen numeroak erakutsi eta hizkuntzaren bat erakusten zenean, ortografia erakutsi. Baina azken batean, ortografia eta matematika eta gai teknikoak baino, gizarteak beste osagai

batzuekin osatutakoa da. Gu ez ginen kontziente orain dela hiru lau urte arte. Hemen oso zoriontsu izan gara, gu lanera etorri, kobratu, ikasleak bukatu, bukatu bezain pronto izugarritzko satisfazioekin eskerrak emanez, lana zuzenean zeukaten, dena oso ondo. Urtebetera kotxe berriarekin, etxean sartu nauk, pisuan sartu nauk eta dena oso ondo zeok. Baina bueno, nik uste dut oso egoera onean gaudela, piko altutatik gauza gutxi ikasten dira, bizio txarrak hartu bakarrik esango nuke eta beheko zona horretatik da ikasten den garaia.